Otros indicadores coyunturales del sector industrial que también inciden en el retroceso de la actividad industrial son los provenientes de la encuesta de opiniones empresariales que publica mensualmente el Ministerio de Industria, Turismo y Comercio. Según estos datos, el índice de clima industrial describió una tendencia de caída que se fue intensificando con el transcurrir de los meses. El retroceso de las carteras de pedidos junto con el aumento del pesimismo en cuanto a la producción futura provocaron el empeoramiento del índice general. Por otra parte, la utilización de la capacidad productiva de la industria, que también se desprende de esta encuesta, mostró una desaceleración en el tercer trimestre de 2012 (71,1%). Afortunadamente, los datos de esta variable para el cuarto trimestre muestran una importante mejora y se sitúa en el 77,2%, el mejor dato de todo 2012.

Jardueraren adierazleak
Urte arteko aldakuntza tasakIndicadores de actividad
Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011			2012		Urria Oct.	Azaroa Nov.	
			IV	I	II	III				
Industria										
Balio erantsi gordina	1,8	2,1	-0,2	-1,1	-2,6	-2,7	---	---	Valor añadido bruto	
Industria produk. Indizea (*)	2,7	1,5	-2,2	-5,0	-8,9	-7,3	-7,8	-8,6	Índ. producción indust. (*)	
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-15,8	-19,5	-22,6	-22,6	---	-27,2	Índice de clima Industrial	
Ekoiizteko ahalm. erabil. (%)	69,8	75,1	78,6	76,4	72,2	71,1	---	77,2	Util. capacidad produc. (%)	
Gizarte Segurantzako afiliaz.	-4,3	-2,2	-2,6	-3,3	-4,4	-4,9	---	-5,4	Afiliación a la S.S.	
Eraikuntza										
Balio erantsi gordina	-9,8	-5,3	-4,8	-5,9	-6,2	-5,7	---	---	Valor añadido bruto	
Eraikuntzaren indizea	-16,9	-10,1	-12,9	-22,8	-22,8	-15,6	---	---	Índice de la construcción	
Obrak zuzentzeko bisatuak	-1,4	-8,3	-53,6	-22,3	-48,3	-54,4	18,9	---	Visados dirección de obra	
Etxebizitzen salerosketak	25,4	-20,0	-18,9	-16,7	-27,0	-14,8	-9,0	-35,3	Compraventa viviendas	
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,5	-8,6	-9,7	-11,1	-12,0	-12,1	---	-12,8	Afiliación a la S.S.	
Zerbitzuak										
Balio erantsi gordina	0,6	0,9	0,6	0,2	0,0	-0,5	---	---	Valor añadido bruto	
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,2	2,4	2,6	0,6	5,8	5,9	5,7	-5,7	Tráfico aéreo	
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,3	5,1	-1,0	-2,5	0,3	0,9	-0,9	6,0	Pernoctaciones hoteleras	
Hoteletako okupazioa	43,7	45,9	40,5	33,1	48,7	61,9	47,7	39,0	Ocupación hotelera	
Negozio zifren indizea	2,8	-0,9	-4,1	-3,9	-7,1	-5,9	-1,7	---	Índice cifra de negocios	
Zerbitzuen koiuntura indizea	---	-3,8	-3,9	-4,5	-8,5	-4,6	---	---	Índ. coyuntural servicios	
Gizarte Segurantzako afiliaz.	0,9	0,9	0,3	-0,5	-1,4	-2,0	---	-3,5	Afiliación a la S.S.	

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

(*) Serie Ciclo Tendencia.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Ministerio de Industria, Turismo y Comercio, Eustat, INE, Ministerio de Fomento, Seguridad Social y Dirección General de Aviación Civil.

Eraikuntzak %5,7ko jaitsiera izan zuen 2012ko hirugarren hiru hilekoan. Beraz, egonkortasuneko joera erakutsi zuen urte osoan zehar, tasa negatibo garrantzitsu baten inguruan. Horrek agerian uzten du jarduera adar horren doikuntza ez dela oraindik amaitu. Gehiegizko eskaintzak, bankuek ezarri dituzten baldintzak gogortu izanak eta ekonomiaren atzeraldiak ez zuten eraikuntzaren susperraldia lagundu. Aitzitik, hiruhileko asko igaroko dira jarduera adar horren susperraldia erraztuko duten oinarri egokiak lortu arte.

El sector de la construcción sufrió una contracción del 5,7% en el tercer trimestre de 2012, marcando un perfil de estabilidad a lo largo del año en torno a una importante tasa negativa, que muestra el ajuste inacabado de esta rama de actividad. El exceso de oferta, el endurecimiento de las condiciones bancarias y la recesión económica no favorecieron un repunte de la construcción. Más bien al contrario. Tendrán que pasar muchos trimestres más hasta que se den unas bases óptimas que propicien la recuperación de esta rama de actividad.

Ekonomia arloen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasak

Valor añadido de los sectores económicos
 Tasas de variación interanual

Industria




Industria

IPI (ziklo joera)




IPI (ciclo tendencia)

Eraikuntza



Construcción

Zerbitzuak



Servicios

Merkatuko zerbitzuak



Servicios de mercado

Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Servicios no comerciales

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Sektore horretaz eskuragarri dagoen koiunturako informazioak ere atzeraldiko irudi bera eskaini zuen. Gizarte Segurantzako erregistroetatik eratorritzen diren enplegu zenbatekoek 2012ko hirugarren hiruhilekoan lanpostuen %12,0aren inguru desagertu zirela erakusten dute. Datu berriagoek agerian uzten dute eraikuntzaren lan merkatuak okerrera egin duela, jaitsiera %12,4ra iritsita. Jarduerari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizea %15,6 jaitsi zen uztailetik irailera bitartean. Hala eraikinen osagaiak nola obra zibilarenak muturreko ahultasuneko zantzuak erakutsi zituzten, baina azken urteetan bizi zen narriadura nabarmen motelduz.

Zerbitzuetako balio erantsiak okertze arina ezagutu zuen eta urte arteko hazkunde tasak %0,5 egin zuen behera 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Lehenengo aldakuntza negatiboa da 2009ko azken hiruhilekotik. Atzerakada hori orokorra izan zen sektore osoan, baina oso esanguratsua izan zen merkaturatzen ez diren zerbitzuek jaso zuten narriadura, %-1,5eko aldakuntza tasa izan baitzuten. Beste aldetik, merkatuko zerbitzuen balio erantsia %0,3 jaitsi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren beherago.

Hirugarren sektoreko taldeak aztertuta, turismoa izan zen aurreko hiruhilekoen aldean susperraldi neurritsua lortu zuen jarduera adar bakarra. EAEko aireportuak erabili zituzten bidaiarien kopuruak gora egin du azken hilekoetan eta hotelei mesedea egin die, beren establezimenduen betetze maila igoarazi duelako. Aitzitik, merkataritzak atzeraldiko joerari jarraipena eman zion. Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak, txikizkako atalean, hazkunde tasa negatiboak jaso zituen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Beheranzko bilakaera bera islatzen du INEk osatzen duen zerbitzuetako jarduera indizeak ere, sektore osoko adierazle globala baita. Arloaren beste estatistika orokor batek, Eustatek egiten duen zerbitzuen koiuntura indizeak, adar horren okertzea erakutsi zuen eta 2012ko hirugarren hiruhilekoan %4,6 jaitsi zen. Sektorea atalka banatzen denean, zeinu negatiboa guztien ezaugarri komuna da.

Ondorio negatibo berera iristen da zerbitzuetako enpleguari buruzko datuak aztertzen direnean. Hiruhilekako kontuen arabera, lanpostuen galera %1,0aren ingurukoa izan zen urte arteko tasan. Orobat, Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsonen kopuruaren aldakuntza %-2,0an kokatu zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Ondorengo hilabeteei dagokien informazioa narriadurako bide beretik doa eta emaitzak aipatu direnak baino are negatiboagoak dira.

La información coyuntural disponible relativa a este sector mostró el mismo perfil de recesión. Las cifras de empleo que se obtienen de los registros de la Seguridad Social mostraron una destrucción de puestos de trabajo en torno al 12,0% en el tercer trimestre de 2012. Datos más recientes evidencian un agravamiento del mercado laboral de la construcción con un descenso del 12,4%. En términos de actividad, el índice coyuntural de la construcción, publicado por Eustat, cayó un 15,6% entre los meses de julio y septiembre. Tanto el componente de edificación como el de obra civil mostraron signos de extrema debilidad, pero con un marcado perfil de moderación del deterioro sufrido en los últimos años.

El valor añadido bruto del sector servicios sufrió un ligero deterioro y su tasa de crecimiento interanual cayó un 0,5% en el tercer trimestre de 2012. Es la primera variación negativa desde el último trimestre de 2009. Este retroceso fue general para la totalidad del sector, pero de forma significativa se debió a la contracción de la rama de servicios no destinados a la venta que se situó en el -1,5%. Por otra parte, el valor añadido de los servicios de mercado descendió hasta el -0,3%, dos décimas por debajo del dato anterior.

Analizando los subsectores terciarios, el turismo fue la única rama de actividad que mantuvo una moderada recuperación con respecto a trimestres anteriores. El número de pasajeros usuarios de los aeropuertos vascos ha mejorado en los últimos meses y ha favorecido a los establecimientos hoteleros, que han visto como aumentaba su grado de ocupación. Al contrario, el comercio continuó con su perfil de recesión. El índice de comercio interior minorista, publicado por el Eustat, presentó registros negativos de crecimiento en el tercer trimestre de 2012. Esa misma evolución de retroceso es compartida por el índice de actividad en el sector servicios, indicador global que elabora el INE. Otra estadística global del sector, el índice coyuntural de servicios elaborado por Eustat, recogió el empeoramiento de esta rama y en el tercer trimestre de 2012 cayó al 4,6%. En la desagregación por subsectores, el signo negativo es la característica común para todos ellos.

La misma conclusión negativa se obtiene del análisis de los datos relativos al empleo en los servicios. Según las cuentas trimestrales, se produjo una destrucción de puestos de trabajo en torno al 1,0% en tasa interanual. Igualmente, la variación de personas afiliadas a la Seguridad Social se cifró en el -2,0% en el tercer trimestre de 2012. La información de los meses siguientes se sitúa en la misma línea de deterioro, con resultados incluso más negativos que los ahora mencionados.



2.2.2. Eskariaren osagaiak
Agregados de la demanda



2012ko hirugarren hiruhilekoan, barneko azken kontsumoak beheranzko joera leundu zuen eta beraren aldakuntza tasa %-1,3an estimatu zen, hots, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino hiru hamarren hobe. Agregatuaren bilakaerak izan duen aldaketa horren oinarrian familiek erosketak aurreratzeko hartu zuten erabakia dago, irailean indarrean sartu zen BEZaren igoera saihesteko. Horren ondorioz, familien kontsumoa %-0,9an kokatu zen. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa nabarmen murriztu zen eta ezarritako hereturak %-3,0ra eraman zuen urte arteko aldakuntza tasa.

En el tercer trimestre de 2012, el consumo final interior aminoró su perfil de caída, por lo que se estimó su variación en el -1,3%, una tasa tres décimas mejor que la del trimestre anterior. Este cambio en la evolución del agregado se debe al efecto anticipación de las compras por parte de los hogares ante la subida de los tipos del IVA que se efectuó en septiembre. Así, el consumo de los hogares se situó en el -0,9%. Por otra parte, el gasto en consumo de las administraciones públicas se redujo sustancialmente y la austeridad implantada situó la tasa de variación interanual en el -3,0%.

Barne eskariaren adierazleak
Urte arteko aldakuntza tasak

Indicadores de demanda interna
Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012		Urria Oct.	Azaroa Nov.	
			IV	I	II	III			
Kontsumo pribatua			Consumo privado						
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,9	0,6	0,5	0,1	-1,4	-0,9	---	---	Estimación cuentas trimestrales
BMI txikizkaria	-0,6	-3,7	-2,9	-3,0	-7,5	-3,5	---	---	ICI minorista
Azalera handiko merkataritza ind. (*)	-0,5	-5,6	-6,8	-3,4	-6,4	-4,7	-0,9	-0,3	Índ. comercio grandes superf.
Landunak txikizkarian	-0,4	-0,3	-0,8	-1,2	-1,3	-1,7	-1,6	-1,5	Ocupados minorista (*)
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,9	-24,6	-11,5	-10,9	-13,2	-19,4	---	-23,3	Matriculación de turismos (*)
Kapital eraketa gordina			Formación bruta de capital						
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-6,0	-1,5	-2,8	-4,2	-4,6	-4,3	---	---	Estimación cuentas trimestrales
IPI ekipamendua EAE (*)	-1,4	5,4	4,9	-1,1	-6,2	-8,6	-10,9	-11,9	IPI bienes equipo País Vasco (*)
IPI ekipamendua Espainia (*)	-2,7	-0,1	-4,8	-10,4	-12,3	-10,8	-10,9	-10,9	IPI bienes de equipo Estado (*)
Ekipo ondasunen inport. nominalak	4,7	1,4	8,4	7,1	1,3	-0,1	9,2	---	Import. nominales bienes equipo
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-0,9	-17,8	-15,2	-13,0	-15,0	-18,7	---	-31,5	Matriculación vehículos carga (*)

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, INEren eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

(*) Serie ciclo tendencia.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, INE y la Dirección General de Tráfico.

Eskariaren osagaien bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Evolución de los componentes de la demanda


Tasas de variación interanual

Kontsumo publikoa



Consumo público

Kontsumo pribatua



Consumo privado

Kapital eraketa gordina



Formación bruta de capital

Barne eskaria



Demanda interna

Esportazioak



Exportaciones

Inportazioak



Importaciones

Udako hilabeteetan, familiek erosketa batzuk aurreratu zituzten BEZaren iraileko igoera saihesteko. Hala eta guztiz ere, ez da inolako hobekuntzarik egon kontsumoa kaltetzen duten gainontzeko alderdietan eta, are gehiago, baldintzak okertu ziren 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Izan ere, lan merkatuari dagokionez, lanpostuen galerak bere horretan jarraitzen du. Finantza arloan, bankuek kreditua lortzeko mugei eutsi zieten. Aurreko guztiaren ondorioz, kontsumitzaileen konfiantza gutxieneko balioetara jaitsi zen eta ezkortasun horrek gastua murriztea ekarri zuen berarekin. Adierazle guztiak bat datoz kontsumoaren ahulezia seinaltatzeko orduan. Beste hiruhileko batez, merkataritzako indizeek salmenten beherakada garrantzitsu bat erakutsi zuten. Beste aldetik, uztailetik irailera bitartean egin ziren automobilen matrikulazioek oso nabarmen egin zuten behera.

Kapitaleko eraketa gordinak ere zertxobait leundu zuen bere jaitsiera eta 2012ko hirugarren hiruhilekoan %4,3 beheratu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Agregatuaren bilakaera horren oinarrian, eraikuntzan eginiko inbertsioa dago, bere narriadura erritmoa leundu zuelako. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, berriz, atzera egin zuen epealdi horretan. Eustaten arabera, EAEko industria produkzioaren indizea, ekipamendurako ondasunen atalean, oso bizkor narriatu zen 2012ko uztailetik irailera bitartean. Orobat, ondasun horien inportazioak %0,1 arte murriztu ziren epealdi berean. Eskariaren ahultasunak ezarri duen mugaz gain, enpresariak finantzazio arazo handiak dauzkate, bankuek kreditua lortzea zailago egin dutelako.

En los meses de verano, los hogares adelantaron algunas decisiones de compra para evitar la subida del IVA que se iba a aplicar a partir de septiembre. Sin embargo, en el resto de factores que constriñen el consumo no ha habido variaciones e incluso han empeorado las condiciones a lo largo del tercer trimestre de 2012. De hecho, respecto al mercado laboral se continuó con la destrucción de puestos de trabajo. A nivel financiero, las entidades bancarias mantuvieron las limitaciones al acceso del crédito. Como resultado de todo ello, la confianza de los consumidores se situó en valores mínimos y ese pesimismo trajo consigo una restricción del gasto. Todos los indicadores comparten esa apatía del consumo. Un trimestre más, los índices relativos al sector comercial encadenaron un importante descenso en las ventas. Por otra parte, las matriculaciones de automóviles realizadas en el periodo de julio a septiembre se derrumbaron de forma muy importante.

La formación bruta de capital también moderó ligeramente su descenso y durante el tercer trimestre de 2012 cayó un 4,3%, tres décimas menos que el trimestre anterior. Esa evolución del agregado se fundamentó en la ralentización del deterioro del sector de la construcción. Mientras tanto, el componente relativo a la inversión en bienes de equipo retrocedió durante este periodo. Según el Eustat, el índice de producción industrial vasco de bienes de equipo se deterioró de forma intensa entre los meses de julio y septiembre de 2012. Igualmente, las importaciones de este tipo de bienes se redujeron hasta el 0,1% durante el mismo periodo. Además de la limitación impuesta por la debilitada demanda, los empresarios encuentran serios problemas de financiación al restringir la banca el acceso al crédito.



2.2.3. Kanpo saldoa eta lehiakortasuna
Saldo exterior y competitividad



Munduko ekonomiak bizi duen moteltzeak eragin zuzena izan zuen herrialdeen artean eginiko merkataritza salerosketetan. Izan ere, esportazioen erritmoak indarra galdu du 2011ko hirugarren hiruhilekoan jasotako %22,1etik urtebete bat beranduago bildu duen %-4,2ra, Munduko Merkataritza Antolakundeak eskaini duen informazioaren arabera. Analisia antzekoa da termino nominalak (dolarrak) erabili beharrean, esportatutako salgaien bolumena kontuan hartzen bada, eta bizitasunaren galera, kasu honetan, aurreko %6,0tik oraingo %1,4ra pasatzen da. Eremu handi guztiek nabaritu dute merkataritzako salerosketen ahultasuna, baina haietako batzuek oraindik gehikuntza tasa positiboak lortu dituzte. Hain zuzen ere, AEBetako esportazioak %1,2 hazi ziren, aurreko balioa (%5,7) baino askoz gutxiago. Txinak, berriz, %4,5 areagotu zituen kanpoan saldutakoaren balioa, baina tasa hori azken urteetako erritmorik apalena da.

Europar Batasunari dagokionez, jaitsiera nominala %8,5 izan zen, bigarren hiruhilekoko baino zertxobait biziagoa. Berrito ere, batasuneko herrialdeetara eta munduko beste eremuetara bideratutako salmenten bilakaera desberdindu behar da. Lehenengoei dagokionez, beherakada askoz ere handiagoa izan zen (%-11,7) eta merkatu berrien bilaketak %3,0ko jaitsiera utzi zuen. Hala ere, dolarretan neurtutako datu hauek une bakoitzeko truke tasaren arabera aldatzen dira. Beraz, beharrezkoa da hiruhilabeteko datuak bolumenean ere aztertzea. Kasu horretan, barneko esportazioen jaitsieraren aldean, Europar Batasunetik kanpo bidalitakoak %4,9 erreale hazi ziren. Azkenik, Japoniak oso emaitza etsigarriak izan zituen, hala termino nominaletan nola bolumenean.

Nazioarteko merkataritzaren bizitasuna galgatzten ari delako testuinguru horretan, ondasunen eta zerbitzuen EAEko esportazioen balioa %7,7 jaitsi zen urte arteko tasan, Eustatek hiruhilekako kontu ekonomikoetan estimatu duenez. Inportazioek ere oso beherakada garrantzitsua (%-7,6) izan zuten termino nominaletan. Bi kasuetan, datu txarrena da 2009ko amaieratik. Termino errealetan, zenbakiak are negatiboagoak dira eta, hurrenez hurren, %-8,5 eta %-9,1 izan dira.

Analisia atzerriarekin eginiko ondasunen salerosketetan fokatzten bada, salmenten jaitsiera ere oso garrantzitsua izan zela (%-9,7) hautematen da. Beherakada hori, ia osorik, garraioari lotuago dauden produktueta pilatzen da, esate baterako garraio materialean (%-22,6) eta plastikoa eta kautxuan (%-45,2). Aitzitik, gainontzeko taldeek urte arteko gehikuntza txiki bat lortu zuten. Ontziolen jarduerak bizi dituen zailtasunak eta, batez ere, automobilgintzaren bultzadarik ezak azaltzen dute hiruhilekoaren jaitsiera. Hala eta guztiz ere, atal horretan egoten diren gorabehera handiek iradokitzen dute jaitsiera horrek ez duela zertan jarraitu datozen hiruhilekoetan.

La desaceleración que vive la economía mundial tuvo un reflejo inmediato en las transacciones comerciales realizadas entre países, de manera que estas se han ido desacelerando desde el 22,1% registrado en el tercer trimestre de 2011 hasta el -4,2% obtenido un año más tarde, según la información ofrecida por la Organización Mundial del Comercio. El análisis es similar si en lugar de hacerlo en términos nominales (dólares) se realiza en volumen de mercancías exportadas, y la pérdida de impulso se traduce en una moderación del 6,0% al 1,4%. Todas las grandes áreas se han visto afectadas por la debilidad de los intercambios comerciales, pero algunas de ellas todavía consiguen algún incremento positivo. Concretamente, las exportaciones de Estados Unidos aumentaron un 1,2%, sensiblemente por debajo del valor anterior (5,7%), mientras que China incrementó un 4,5% sus ventas al exterior, el ritmo más bajo de los últimos años.

En lo que a la Unión Europea se refiere, el descenso nominal fue del 8,5%, algo mayor al del segundo trimestre. Una vez más, hay que diferenciar la evolución de las ventas a otros países de la Unión de las ventas al resto del mundo. En el primer caso, la caída fue sensiblemente superior (-11,7%), mientras que la búsqueda de nuevos mercados se saldó con un descenso del 3,0%. No obstante, estos datos en dólares están afectados por el tipo de cambio de cada momento, por lo que resulta pertinente fijarse en los datos del trimestre en volumen. En este caso, frente al descenso de las exportaciones interiores, las enviadas a países de fuera de la Unión Europea aumentaron un 4,9% real. Por último, Japón obtuvo unos resultados muy decepcionantes, tanto en términos nominales como en volumen.

En este contexto de pérdida de dinamismo del comercio internacional, el valor de las exportaciones de bienes y servicios de Euskadi cayó un 7,7% en tasa interanual, según la estimación realizada por el Eustat en las cuentas económicas trimestrales. También las importaciones registraron un descenso muy importante (-7,6%) en términos nominales. En ambos casos, se trata del peor dato desde finales de 2009. Las cifras en términos reales son incluso más negativas y se han cuantificado, respectivamente, en un -8,5% y un -9,1%.

Si se centra el análisis en los intercambios de bienes realizados con el extranjero, se aprecia que el descenso de las ventas fue también muy importante (-9,7%). Esta caída se concentra, prácticamente en su totalidad, en los productos más ligados al transporte, como son el grupo de material de transporte (-22,6%) y el grupo de plástico y caucho (-45,2%), mientras que el resto de apartados, en conjunto, habría tenido un ligero aumento interanual. Las dificultades por las que atraviesa la actividad de los astilleros y, sobre todo, la pérdida de impulso en la automoción explican la caída del trimestre. Con todo, las fuertes oscilaciones que se suelen producir en este apartado sugieren que este descenso puede no tener continuidad en los próximos periodos.

Ondasunen esportazioak

Urte arteko aldakuntza tasak

Exportaciones de bienes

Tasas de variación interanual

AEB



EE. UU.

Europar Batasuna

Unión Europea




Txina

China

Japonia

Japón



Iturria: Munduko Merkataritza Elkartea.

Fuente: Organización Mundial del Comercio.

Atzerritik etorritako ondasunen inportazioek laugarren murrizketa jarraitua kateatu zuten, baina hirugarren hiruhilabeteko jaitsiera aurreko bi epealdietakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen. Nabarmentzen dira produktu mineral eta energetikoen (erregaiak, batez ere) erosketaren gehikuntza, aurreko jaitsiera biziaren ondoren, eta makinaren eta tresnen inportazioen aurrerakada berria, aurreko hiruhilekoetakoa baino askoz txikiagoa izan arren. Beste muturrean, metal arruntaren erosketak, guztizkoan pisu gehien duten taldeetako bat baita, laugarren datu negatibo jarraitua jaso zuen, baina aurreko biak baino askoz motelagoa izan zen honako hau. Garraioari lotutako taldeek ere beharrekada garrantzitsuak eskuratu zituzten hirugarren hiruhilekoan.

Las importaciones de bienes procedentes del extranjero encadenaron su cuarta reducción consecutiva, si bien el descenso del tercer trimestre fue sensiblemente menor que el de los dos periodos precedentes. Destaca el incremento en las compras de productos minerales y energéticos (combustibles, en su mayoría) tras las fuertes caídas anteriores, y el nuevo avance de las importaciones de máquinas y aparatos, aunque se trata de un porcentaje muy inferior a los de los trimestres anteriores. En el otro extremo, las compras de metales comunes, uno de los grupos con mayor peso en el total, anotaron su cuarto dato negativo consecutivo, pero notablemente menos intenso que los dos precedentes. También los apartados ligados al transporte registraron descensos importantes en el tercer trimestre.

Ekonomia eremuek izan zituzten hazkunde erritmo ezberdinak EAEko enpresek merkatu bakoitzean lortu zituzten salmentetan islatzen dira. Izan ere, AEBetan bakarrik lortu zen esportazioak nabarmen areagotzea (%24,0). Aitzitik, Europako ekonomien geldotasunak EAEko enpresei eginiko eskaerak baldintzatu zituen, %18,6 murriztu baitziren. Europan dauden bi helburu merkatu nagusiek, hots, Alemaniak eta Frantziak, ehuneko esanguratsuetan gutxitu zituzten eskaerak, Italiak bezala (%-34,7). Europako herrialde handien artean, Erresuma Batua izan zen salbuespena, baina gehikuntza (%1,8) txikia izan zen.

El diferente ritmo de crecimiento de las áreas económicas se refleja en las ventas de las empresas vascas por mercados, de manera que tan solo en Estados Unidos se consiguió un aumento significativo de las exportaciones (24,0%). Por el contrario, la atonía de las economías europeas condicionó las peticiones de bienes a las empresas vascas, que se redujeron un 18,6%. Los dos principales mercados de destino en Europa, esto es, Francia y Alemania, disminuyeron sus pedidos en porcentajes significativos, al igual que Italia (-34,7%). La excepción entre los grandes países europeos fue Reino Unido, aunque el incremento (1,8%) fue modesto.

Ondasunen salerosketa atzerriarekin

Urte arteko aldakuntza tasak

Intercambio de bienes con el extranjero

Tasas de variación interanual

	2011		2012			Mila € 2012-III	
	III	IV	I	II	III	Miles de € 2012-III	
Esportazioak	25,5	24,8	0,2	2,2	-9,7	4.752.018	Exportaciones
Nekazaritzako produktuak	18,3	28,3	16,6	70,2	40,7	226.300	Productos agrícolas
Prod. mineral eta energetikoak	11,1	104,8	-28,9	-32,9	6,5	558.718	Prod. minerales y energéticos
Produktu kimikoak	-3,0	-15,8	-22,7	-10,8	-16,6	90.157	Productos químicos
Plastikoa eta kautxua	198,8	21,4	78,3	25,5	-45,2	480.874	Plástico y caucho
Papera	-2,1	-4,6	-3,8	-7,2	4,1	123.789	Papel
Metal arruntak eta manufakturak	5,7	7,3	-7,4	-7,6	0,0	1.177.575	Metales comunes y manufac.
Makinak eta tresnak	5,1	25,4	19,2	7,4	8,0	1.005.785	Máquinas y aparatos
Garraio materiala	36,0	25,7	-7,7	9,9	-22,6	851.456	Material de transporte
Bestelakoak	5,3	2,0	0,8	-1,9	-10,4	237.361	Otros
Inportazioak	11,5	-2,8	-15,5	-17,4	-3,9	3.984.871	Importaciones
Nekazaritzako produktuak	0,1	-4,3	-5,5	3,0	8,7	234.924	Productos agrícolas
Prod. mineral eta energetikoak	9,9	-15,8	-30,2	-30,4	7,1	1.566.179	Prod. minerales y energéticos
Produktu kimikoak	66,0	38,2	11,2	1,6	-15,9	177.450	Productos químicos
Plastikoa eta kautxua	70,2	38,8	17,3	-17,4	-32,2	220.188	Plástico y caucho
Papera	23,0	-7,0	-13,0	-27,5	-38,5	73.060	Papel
Metal arruntak eta manufakturak	2,1	-6,2	-22,9	-22,7	-6,7	773.222	Metales comunes y manufac.
Makinak eta tresnak	4,0	5,1	6,3	3,3	0,9	555.723	Máquinas y aparatos
Garraio materiala	-3,1	23,6	10,0	-5,5	-3,8	137.154	Material de transporte
Bestelakoak	7,6	-6,3	-0,9	6,3	-15,7	246.973	Otros

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Nota: Los datos trimestrales y los de 2011 son provisionales.

Fuente: Eustat según datos de la Agencia Estatal de Administración Tributaria.

ELGETik kanpoko herrialdeen multzoa ere ez zen helburu dinamiko bat EAEko ekoizkinen salmentarako eta, oro har, eremu horretara esportatutakoa %1,9 gutxitu zen. Zalantzarik gabe, ehuneko hori herrialde garatueta jasotakoa baino askoz txikiagoa da, baina garapen bidean dauden ekonomien sendotasuna kontuan hartuta, beraietan saldutakoa gutxiago izana emaitza txartzat jo behar da. Herrialdeka, Txinara esportatutakoa %41,1 jaitsi zen, automobil eta erreaktore nuklear gutxiago saldu zirelako. Brasilen, datuek jaitsiera arina erakusten dute. Errusian (%-21,9) berriz, salmenten lehen murrizketa urteetan jaso zen, erreaktore nuklearrek eta tresnek emaitza txarra izan zutelako.

El conjunto de países ajenos a la OCDE tampoco se reveló como un destino dinámico para las ventas de productos vascos y, en conjunto, las exportaciones a esa área se redujeron un 1,9%. Se trata, sin duda, de un porcentaje de caída muy inferior al obtenido en los países desarrollados, pero teniendo en cuenta la fortaleza de las economías en desarrollo, un descenso en las ventas debe considerarse como un mal resultado. Por países, las exportaciones a China descendieron un 41,1%, como resultado de una menor venta de automóviles y de reactores nucleares. En Brasil, los datos ofrecen una ligera caída, mientras que en Rusia (-21,9%) se registró el primer descenso de ventas en años, por los malos resultados de los grupos reactores nucleares y herramientas.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helburua eta jatorria

Urte arteko aldakuntza tasak

Destino y origen del comercio del País Vasco con el extranjero

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011				2012				Mila € 2012-III	Guztiarekiko ehunekoa	
			IV	I	II	III	Miles de € 2012-III	Porcentaje s/total					
Esportazioak	19,6	20,1	24,8	0,2	2,2	-9,7	4.752.018	100,0	Exportaciones a:				
ELGE	21,1	27,3	33,2	4,9	1,9	-11,8	3.667.993	77,2	OCDE				
Europar Batasuna 27	22,3	26,3	34,4	7,6	1,9	-18,6	2.865.700	60,3	Unión Europea 27				
Europako kide berriak	26,4	29,4	23,2	15,2	13,4	-21,2	250.012	5,3	Nuevos Países Miembros				
Alemania	19,7	25,4	14,9	3,4	4,7	-16,4	632.079	13,3	Alemania				
Frantzia	23,5	36,6	86,4	4,3	-6,7	-9,4	825.198	17,4	Francia				
AEB	18,1	20,1	-1,1	-39,5	-19,4	24,0	396.862	8,4	Estados Unidos				
ELGE ez direnak	15,2	0,3	-0,1	-13,9	3,1	-1,9	1.084.025	22,8	No OCDE				
Inportazioak	25,5	12,1	-2,8	-15,5	-17,4	-3,9	3.984.871	100,0	Importaciones de:				
ELGE	24,7	9,8	11,7	5,4	1,4	8,3	2.398.512	60,2	OCDE				
Europar Batasuna 27	23,3	7,7	6,0	-13,1	-5,9	-2,5	1.789.415	44,9	Unión Europea 27				
Europako kide berriak	9,0	19,5	-3,7	-28,1	1,7	-28,1	103.294	2,6	Nuevos Países Miembros				
Alemania	22,6	18,3	17,8	9,0	2,0	-7,4	456.804	11,5	Alemania				
Frantzia	29,4	12,2	0,5	-4,2	-7,8	-12,7	380.224	9,5	Francia				
AEB	6,1	67,4	121,5	141,0	-25,4	-29,2	121.432	3,0	Estados Unidos				
ELGE ez direnak	36,7	15,3	-20,9	-39,0	-41,6	-17,9	1.586.359	39,8	No OCDE				

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Nota: Los datos trimestrales y los de 2011 son provisionales.

Fuente: Eustat según datos de la Agencia Estatal de Administración Tributaria.

Inportazioen analisisian, deigarria da erosketak garatutako herrialdeetan areagotu direla, baina garapen bidean daudenetan, ordea, gutxitu direla. Lehen kasuan, ELGEren multzoak hornitutako ondasunen balioak %8,3an gainditu zuen aurreko urteko zenbatekoa. Gainontzeko herrialdeek, berriz, %17,9ko jaitsiera izan zuten urte arteko tasan, aurreko hiru hiruhilekoetan jasotakoei jarraipena emanaz. Europa da oraindik EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia, baina zertxobait gutxitu zuen bere aldakuntza tasa, Frantzia eta Alemanian eginiko eskaerak murriztu zirelako. Jaitsiera hori neurri batean konpentsatu zuten britainiar eta italiar ekoizkinekin eskari handiagoak.

Azaleratzen ari diren herrialdeetan erositakoa gutxiago izan zen ia guztietan, salbuespena Errusia (%34,1) izan zelarik, erregaien hornitzaile nagusietakoa baita, aurreko epealdietako emaitza txarrak konpentsatuz. Txinak (%13,5), Brasilek (%-9,9) eta beste herrialde garatu gabeek (%-41,4) EAEko ekonomiak 2012ko hirugarren hiruhilekoan izan zuen jarduera eza nabaritu zuten.

Atzerrian saldutako eta erositako ondasunen beherakadak 767 milioi eurotan utzi du EAEko merkataritza saldoa. Diru kopuru hori ez da oso handia aurreko lau hiruhilekoetan lortutako datuekin alderatzen bada, guztietan 1.000 milioi euroko saldoa lortu baitzen. Ohikoa denez, ondasun energetikoen saldoa oso negatiboa izan zen eta 1.007 milioi eurora iritsi zen. Aitzitik, energiaz bestelako saldoa EAEn aldekoa izan zen eta 1.774 milioi eurotan kokatu zen, aurreko epealdietan baino gutxiago, baina oso esanguratsua serie historiko osoa kontuan hartzen bada.

En el análisis de las importaciones, llama la atención el incremento de las compras en los países desarrollados, mientras que se reducen las cantidades adquiridas en las economías en desarrollo. En el primer caso, el conjunto de la OCDE suministró bienes por un valor que superó en un 8,3% la cifra del año precedente, mientras que el resto de países anotó un descenso del 17,9% en tasa interanual, que se une a los registrados los tres trimestres anteriores. La Unión Europea sigue siendo el principal proveedor de la economía vasca, pero también redujo ligeramente su tasa de variación, por los descensos de los pedidos realizados a Francia y Alemania, compensados parcialmente por una mayor demanda de productos británicos e italianos.

Las compras en países emergentes fueron menores en prácticamente todos ellos, con la excepción de Rusia (34,1%), uno de los principales suministradores de combustibles, que compensa con ello los pobres resultados de los periodos anteriores. China (-13,5%), Brasil (-9,9%) y el resto de países en desarrollo (-41,4%) se resintieron por la falta de actividad de la economía vasca en el tercer trimestre de 2012.

El descenso de las exportaciones e importaciones de bienes al extranjero sitúa el saldo comercial de Euskadi en los 767 millones de euros, una cantidad modesta si se compara con los datos de los cuatro trimestres precedentes, todos ellos con valores superiores a los 1.000 millones de euros. Como viene siendo habitual, el saldo por bienes energéticos fue muy negativo y alcanzó los 1.007 millones de euros, mientras que el no energético fue favorable a Euskadi y se situó, a su vez, en los 1.774 millones de euros, una cifra inferior a la de los periodos anteriores, pero muy significativa si se tiene en cuenta toda la serie histórica.



2.2.4. Lan merkatua
Mercado de trabajo



Lan merkatuaren adierazle berriek seinatzen dutenez, EAEko lan merkatuak narriadura areagotu zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan, ekonomiak 2011ko erdialdetik bizi duen atzeraldi gero eta sakonagoarekin bat eginez. Hori horrela izanda, ekonomiaren jardura maila apalak eragin handia izan zuen lan merkatu horretan, lanpostuak galtzeko erritmoa berriro areagotuz.

Aipatua izan den enplegu galeraren bizkortzea aldagai hori aztertzen duten estatistika eta erregistro guztietan islatuta geratu zen. Beherakada handiena, berriro, BAI inkestak aurkeztu zuen, beherantzko joeran bizkortze bizia estimatu zuelako. Hain zuzen ere, 2009ko amaieratik inoiz jaso den baliorik negatiboa (%-7,5) eman zuen inkesta horrek. Emaizta hori ez dator bat gainontzeko estatistikek eskaini dituzten datuekin eta ez dago justifikatuta ekoizpenaren bilakaera ikusita. BJA inkestak ere, lan merkatuaren beste inkestak bezala, oso datu negatiboa argitaratu zuen hiruhileko horretan (%-3,6), baina ibilbidea lauagoa da. Azkenik, kontu ekonomikoek eta Gizarte Segurantzako afiliazioak hirugarren hiruhilekorako erakutsi zituzten erregistroak oso antzekoak dira, hurrenez hurren, %2,7ko eta %2,4ko beherakadekin. Azken hauen narriadura hirugarren hiruhilekoan egonkortu bazen ere, ondorengo hilekoetan afiliazioaren datuek okerrera egin zuten nabarmen, urte arteko jaitsierak %3 gainditu arte.

Adierazi berrienez, kontu ekonomikoek estimatu zuten enplegu galera aurreko hiruhilekokoa baino handiagoa izan zen, azken hamabi hilekoetan ia 26.000 lanpostu galdu baitziren. Galera hori sektore handi guztietara zabaldu zen, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, bere enplegua zertxobait areagotu zuelako berriro. Zehazkiago, eraikuntza berriro izan zen arlo kaltetuena (%-12,3) termino erlatiboetan, obra zibilaren esparruan murrizketak egin zirelako eta egoizetan eginiko inbertsioa gutxitu zelako. Beste aldetik, termino absolutuetan industriak galdu zituen besteek baino lanpostu gehiago, 10.093 langile galduta. Azkenik, zerbitzuek ere landunak murriztu zituzten eta 650.000 lanpostuen azpitik geratu ziren, lehenengo aldiz 2010eko hasieratik.

Kontuan hartuta, kontu ekonomikoaren arabera, bai lanpostuen kopurua bai ekoizpena lau hamarren jaitsi zirela, produktibitatearen irabazia hirugarren hiruhilekoan aurreko bi epealdietan lortutakoaren antzekoa izan zen (%1,4). Lehen arloaz aparte, horrek oso emaitza altua jaso baitzuen berriro, produktibitatearen gehikuntza handiena eraikuntzan jaso zen berriro (%7,5), ondoren industria (%2,1) datorrela, bi kasuetan lanpostuen galera garrantzitsu baten ondorioz. Zerbitzuetako produktibitatea, berriz, %0,5 hobetu zen, balio historikoetatik oso hurbil, sektorea orain enplegua galtzen ari den arren.

Según los indicadores laborales más recientes, el mercado de trabajo vasco continuó deteriorándose durante el tercer trimestre de 2012, en línea con el recrudescimiento de la fase recesiva de la economía a partir de mediados de 2011. De este modo, el bajo nivel de la actividad económica afectó intensamente a dicho mercado laboral, acelerándose una vez más el ritmo de caída del empleo.

La mencionada intensificación de caída del empleo se reflejó en todas y cada una de las diferentes estadísticas y registros que analizan dicha variable. El mayor descenso nuevamente lo presentó la encuesta de la EPA, con una aceleración notable de dicha caída, lo que provocó que se situara en el valor más bajo desde finales de 2009, concretamente en el -7,5%, una estimación que no está en línea con el resto de fuentes estadísticas y que tampoco se justifica a la luz de los datos de producción. La PRA, al igual que la otra encuesta del mercado de trabajo, también ofreció un dato muy negativo (-3,6%), pero con un perfil más plano. Finalmente, los registros mostrados en este tercer trimestre por las cuentas económicas y los afiliados a la Seguridad Social fueron similares, con una caída del 2,7% y 2,4% respectivamente. Si bien el deterioro de estos últimos se estabilizó en el tercer trimestre, en los meses posteriores los registros de afiliación empeoraron notablemente, hasta superar el 3% de caída interanual.

Como se acaba de señalar, la pérdida de empleo que estimaron las cuentas económicas fue superior a la del trimestre anterior, perdiéndose casi 26.000 puestos de trabajo durante este último año. Esta disminución se extendió a todos y cada uno de los grandes sectores, salvo al primario, que volvió a incrementar ligeramente su ocupación. Así, la construcción continuó siendo el peor sector en términos relativos (-12,3%), debido tanto a la consolidación fiscal en el ámbito de la obra civil, como a la disminución de la inversión residencial. Por su parte, la industria fue la que más empleo expulsó en términos absolutos, al reducirse el número de ocupados en 10.093. Finalmente los servicios también redujeron sus efectivos y volvieron a quedar por debajo de los 650.000 puestos de trabajo, una circunstancia que no se producía desde comienzos de 2010.

Teniendo en cuenta que, según las cuentas económicas, tanto el número de puestos de trabajo como la producción se redujeron cuatro décimas, la ganancia de productividad en el tercer trimestre fue muy similar a la de los dos periodos anteriores (1,4%). Al margen del sector primario, que volvió a registrar un dato muy elevado, el mayor incremento de productividad se registró de nuevo en la construcción (7,5%), seguido de la industria (2,1%), en ambos casos como resultado de una fuerte pérdida de puestos de trabajo. Por su parte, la productividad de los servicios mejoró un 0,5%, un registro similar a su valor histórico, a pesar de que ahora se está perdiendo empleo en el sector.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Evolución del empleo



Tasas de variación interanual

Kontu ekonomikoak

Cuentas económicas

Afiliazioa

Afiliación



BJA

PRA

BAI

EPA



Iturria: Eustat, INE eta Gizarte Segurantzak.

Fuente: Eustat, INE y Seguridad Social.

BJA inkestaren arabera, enpleguaren galerak kalte eman zien bi sexuei eta adin talde guztiei. Hala ere, enplegu tasaren azterketa batek iradokitzen du lan merkatuaren narriadurak gehiago kaltetu zituela gazteak, lana dutenen ehunekoak beste 3,6 puntu galdu dituelako aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean, %15,5ean kokatu arte. Aitzitik, adin handiagoko taldeen enplegu tasa egonkortuta daude, %75ean 25 eta 44 urte bitarteko taldean, eta %36an 44 urtetik gorako taldean. 16 urtetik gorako biztanlerian, %48,3 bakarrik zegoen lanean hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan zeudenak baino puntu erdi bat gutxiago.

Según los datos de la PRA, la pérdida de empleo afectó a ambos sexos y a todos los grupos de edad. Sin embargo, un análisis de la tasa de ocupación sugiere que los más perjudicados por el deterioro del mercado de trabajo son los jóvenes, cuya proporción de empleados se ha reducido otros 3,6 puntos respecto al trimestre anterior, hasta situarse en el 15,5%. Por el contrario, las tasas de empleo de los grupos de más edad se encuentran estabilizadas en el 75%, para el tramo de 25 a 44 años, y en el 36,8%, para el de más de 44 años. En el conjunto de la población de más de 16 años, tan solo el 48,3% tenía un empleo en el tercer trimestre, que supone un descenso de medio punto respecto al trimestre anterior.

Enplegua eta ekoizkortasun irabaziak

Urte arteko aldakuntza tasak

Empleo y ganancias de productividad

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012		
			IV	I	II	III	
Enplegua guztira	-0,9	-0,6	-1,3	-1,7	-2,3	-2,7	Empleo total:
<i>Produktibitatea guztira</i>	1,2	1,2	1,5	1,4	1,4	1,4	<i>Productividad total:</i>
Enplegua lehen arloan	-1,0	-3,9	-2,2	-0,3	3,2	1,5	Empleo del sector primario
<i>Produktibitatea lehen arloan</i>	26,0	-3,9	19,5	18,4	9,1	5,2	<i>Productividad sector primario</i>
Enplegua industrian	-3,6	-1,9	-2,4	-3,0	-4,3	-4,7	Empleo en la industria
<i>Produktibitatea industrian</i>	5,6	4,1	2,3	2,0	1,8	2,1	<i>Productividad en la industria</i>
Enplegua eraikuntzan	-6,9	-7,8	-9,7	-11,7	-12,1	-12,3	Empleo en la construcción
<i>Produktibitatea eraikuntzan</i>	-3,1	2,7	5,4	6,6	6,7	7,5	<i>Productividad en construcción</i>
Enplegua zerbitzuetan	0,9	0,9	0,2	-0,1	-0,7	-1,0	Empleo en los servicios
<i>Produktibitatea zerbitzuetan</i>	-0,3	0,0	0,4	0,3	0,7	0,5	<i>Productividad en los servicios</i>

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat.

Aldi berean, biztanleria aktiboak gutxituz jarraitu zuen, urte arteko jaitsiera 24.200 lagunekoa izan zelarik. Kopuru horrek %-1,9an uzten du azken hamabi hilabeteko aldakuntza tasa. Horren ondorioz, jarduera tasa %54,7an kokatu zen, 2007ko hasieratik inoiz jaso den baliorik apalena baita. Lan merkatutik irteteko prozesu horretan hainbat arrazoi daude. Izan ere, biztanleria zahartzen ari denez, askoz gehiago dira lan merkatutik irteten direnak sartzeko gutxieneko adina betetzen dutenak baino. Horren ondorioz, partaidetza tasa orokorrak beherantz jotzen du. Baina talde gazteenetan nolabaiteko etsipena ere hautematen da, lanpostu bat lortzea zaila delako. Beraz, bilatzeari uzten diote. Badirudi hori dela 25etik 44 urtera doan taldearen partaidetza tasa %85,9ra jaitsi izanaren arrazoia, aurreko datua baino puntu erdi bat beherago. Gazteek, berriz, ikasketak luzatzea aukeratzen dute enplegua bilatzen hasi baino lehen.

Al mismo tiempo, la población activa continuó reduciéndose, con una caída interanual de 24.200 personas, lo que supone una tasa de variación interanual del -1,9%. Con ello, la tasa de actividad se situó en el 54,7%, que es el valor más bajo desde principios de 2007. En este abandono del mercado laboral se aprecian diferentes razones. Así, el envejecimiento de la población hace que el número de personas que sale del mercado de trabajo sea significativamente mayor del que cumple la edad mínima para entrar en él, por lo que la tasa de actividad global tiende a reducirse. Pero, además, en los grupos más jóvenes se aprecia también cierto desánimo por las dificultades para encontrar un empleo, por lo que optan por abandonar la búsqueda. Esta parece ser la razón por la que la tasa de actividad del grupo de 25 a 44 años se ha reducido hasta el 85,9%, medio punto por debajo del dato precedente. Por su parte, la juventud opta por alargar los estudios antes de estar disponibles para el empleo.

Lanpostuen galera garrantzitsuak langabeziaren gorakada bizia ekarri zuen berarekin, urte arteko tasan eta BJAren arabera %8tik gorakoa. Horren ondorioz, langabezia tasak gora egin zuen, 2011ko hirugarren hiruhilekoan estimatu zen %10,6tik oraingo %11,8ra. Hala ere, adierazle horrek jaitziera arina izan du aurreko balioen aldean. Hain zuzen ere, bai lehen hiruhilekoko langabezia tasa bai bigarren hiruhilekoko hirugarrenekoa baino zertxobait handiagoak izan ziren, eta bi hiruhilabete kateatu dira beherantz. Zoritxarrez, langabezia tasaren jaitziera lan merkatua uztearen ondorioa da eta ez enplegua sortzearen ondorioa. Langabeziaren igoerak eragin handiagoa izan zuen gazteen artean eta beraien tasa biztanleria aktiboaren %36,5ean dago jadanik, aurreko balioa baino ia sei puntu gorago. Aitzitik, emaitzak hobek dira gainontzeko adinetan. Beraz, arazoa belaunaldi gazteenetan fokatzeko ari da. Langabeen artean kontuan hartu behar den beste alderdi negatibo bat estaldura adierazlearen okertzea da, azken hilekoetan %57aren inguruan kokatu baitzen, aurreko epealdietako emaitzen oso azpitik.

La importante pérdida de puestos de trabajo trajo consigo un notable aumento del desempleo, superior al 8% interanual, según la PRA. Con ello, la tasa de paro aumentó desde el 10,6% estimado en el tercer trimestre de 2011 hasta el 11,8% actual. No obstante, se observa un ligero descenso de este indicador respecto a los valores precedentes. Concretamente, tanto la tasa de paro del primer trimestre como la del segundo fueron algo superiores a la del tercero, y se encadenan dos trimestres de reducción. Lamentablemente, la moderación de la tasa de desempleo es consecuencia del abandono del mercado laboral y no de un proceso de creación de empleo. Dicha alza del paro afectó con más intensidad al colectivo de los más jóvenes, cuya tasa alcanzaba ya el 36,5% de su población activa, casi seis puntos por encima del valor precedente. Por el contrario, los resultados son más favorables en el resto de edades, por lo que el problema tiende a concentrarse en las generaciones más jóvenes. Otro aspecto negativo a considerar dentro de la población parada fue el empeoramiento del indicador de cobertura, ya que se situó en torno al 57% en los últimos meses, una cifra muy inferior a la de periodos anteriores.

Partaidetza, enplegu eta langabezia tasak

Ehunekoak

Tasas de actividad, ocupación y paro

Porcentajes

	2010	2011	2011		2012		
			IV	I	II	III	
Partaidetza tasa	55,9	56,2	55,8	55,4	55,4	54,7	Tasa de actividad
- Gizonak	64,0	63,2	62,5	62,2	61,3	60,9	- Hombres
- Emakumeak	48,3	49,5	49,4	49,0	49,8	48,9	- Mujeres
- 16 urtetik 24ra	31,9	30,3	28,1	29,2	27,5	24,4	- 16 a 24 años
- 25 urtetik 44ra	87,3	87,6	87,0	86,7	86,4	85,9	- 25 a 44 años
- 45 urte eta gehiago	39,3	40,2	40,4	40,0	40,2	40,0	- 45 años y más
Enplegu tasa	50,8	50,1	49,5	48,7	48,8	48,3	Tasa de ocupación
- Gizonak	57,8	56,1	54,9	54,4	53,9	53,5	- Hombres
- Emakumeak	44,2	44,4	44,4	43,4	44,1	43,3	- Mujeres
- 16 urtetik 24ra	23,9	23,0	21,3	21,4	19,1	15,5	- 16 a 24 años
- 25 urtetik 44ra	78,9	77,1	75,9	75,1	75,1	75,0	- 25 a 44 años
- 45 urte eta gehiago	36,8	37,2	37,3	36,6	36,9	36,8	- 45 años y más
Langabezia tasa	9,2	10,8	11,2	12,1	11,9	11,8	Tasa de desempleo
- Gizonak	9,6	11,3	12,1	12,6	12,1	12,1	- Hombres
- Emakumeak	8,6	10,3	10,1	11,5	11,5	11,3	- Mujeres
- 16 urtetik 24ra	25,1	24,0	24,2	26,5	30,8	36,5	- 16 a 24 años
- 25 urtetik 44ra	9,6	12,1	12,7	13,4	13,0	12,7	- 25 a 44 años
- 45 urte eta gehiago	6,6	7,5	7,6	8,6	8,2	8,1	- 45 años y más

Iturria: BJA (Eustat).

Fuente: PRA (Eustat).


Enplegua erregulatzeko dosierren kopuruak gora egin zuen berriro, azaroan eskuragarri zeuden azken datuen arabera, bi arrazoirengatik bereziki. Alde batetik, administrazioaren baimena orain ezinbestekoa ez izateak dosierren kopurua areagotzea ekarri du, nahiz eta gero epaileek ebatzi dezaketen dosierra baliogabea edo bidezkoa den, akordiorik ezean. Beste aldetik, araudiaren aldaketez gain, atzeraldian berriro sartu izanak eragina izan zuen kopuruan.

Por lo que respecta a los expedientes de regulación de empleo, según los últimos datos disponibles del mes de noviembre, estos continuaron incrementándose, principalmente por dos factores. Por un lado, el hecho de que la autorización administrativa no sea preceptiva ha facilitado el crecimiento de dichos expedientes, quedando posteriormente la posibilidad de que los tribunales dicten si el expediente es nulo o procedente, en caso de falta de acuerdo. Y por otro lado, además de esos cambios normativos, la vuelta a la recesión se dejó sentir en las cifras globales.

Langabezia tasaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Evolución de la tasa de paro

Tasas de variación interanual

Europar Batasuna 27



Fuente: Eustat y Eurostat.

Dosier moten artean, behin-behineko eteteak eta lanaldia murriztekoak izan ziren berriro gehien erabili zirenak, 2009. urtetik diru laguntzak daudelako, bai langileentzat bai enpresentzat, dossier mota horiek erabiltzen dituztenentzat, enplegu galera gelditzeko asmoarekin. Hala ere, 2013. urtetik diru laguntza horiek desagertuko dira eta, horren ondorioz, kontratua amaitzeko dossierrek protagonismoa irabaziko dutela espero da.

Entre los distintos expedientes, una vez más fueron los de suspensión temporal y los de reducción de jornada los de mayor número, ya que desde 2009 existen unas ayudas tanto para los trabajadores como para los empresarios al aplicar este tipo de expedientes, con el fin de contener la destrucción de empleo. No obstante, a partir de 2013 dichas ayudas se eliminarán, con lo cabe esperar que los expedientes de extinción ganen un mayor protagonismo.

Azkenik, adierazi behar da aldibaterakotasuneko tasak baliorik gorena hartu zuela 2006ko amaieratik, %22,3ra iritsita. Aldibaterakotasuneko tasaren igoera bi arrazoietan oinarritzen da, kontratu mugagabea duten landunak gutxitu izatean eta aldi baterako landunen kopurua, berriz, igotzean.

Finalmente, hay que señalar que la tasa de temporalidad alcanzó el valor más elevado desde finales de 2006, situándose en el 22,3%. El aumento de la tasa de temporalidad se produce por el descenso del número de ocupados con contrato indefinido y por el aumento en los contratos temporales.

Enplegua erregul. EAEn baimendu diren dosierrak

Exp. regulación empleo autorizados Euskadi


	2010	2011	2011				2012		Azaroa Noviembre	
			III	IV	I	II	III			
Dosierrren kopurua	1.993	1.560	268	545	644	744	518	218	Numero expedientes	
Eragindako langileak	35.426	22.072	4.733	7.414	9.811	9.431	8.437	2.019	Personas afectadas	
<i>Dosier mota</i>									<i>Tipo expediente</i>	
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	473	948	1.157	1.716	933	484	- Reducción	
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	3.781	5.669	7.721	6.535	7.055	1.434	- Suspensión	
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	479	797	933	1.180	449	101	- Extinción	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Fuente: Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.



2.2.5. Prezioak, kostuak eta soldatak
Precios, costes y salarios



Prezioen bilakaera aztertzen duten adierazle guztiek, salbuespen bakarra BPGaren deflatorea delarik, goranzko joera erakutsi zuten 2012ko hirugarren hiruhilekoan, petrolio gordinaren presio inflaziogileak eta zergen igoerek kaltetuta. Hala eta guztiz ere, azken hilekoetan, presio hori moteldu egin da eta goranzko joera zertxobait irauli da. Lan kostuek, berriz, beste urrats bat eman zuten lan merkatuaren egoera zailari egokitzeko eta hazkunde negatiboak erakutsi zituzten, neurri batean irazitzearen kostuak murriztu zirelako.

Prezioak BPGaren deflatorearen bitartez aztertzen direnean, ekonomia osoaren prezioek beheranzko joera arina izan dutela ikusten da. Izan ere, deflatorea %0,9an kokatu zen, 2010eko lehen hiruhilekotik jaso den baliorik apalena baita. Hala ere, pisu gehien duen deflatorea, hots, kontsumo pribatuarena, igo egin zen aurreko hiruhilekoaren aldean (%1,8tik %2,0ra igaro zen), KPI indizeak erakutsi zuten bilakaerarekin bat eginez. Aitzitik, kontsumo publikoaren (%0,1) eta kapital eraketa gordinaren (%0,6) deflatoreek behera egin zuten epealdi berean.

KPlari dagokionez, aurreko epealdian bizi zuen moteltzearen ondoren, nabarmen igo zen hirugarren hiruhilekoan, energiaren salneurriak izan zuen gorakadak, zergen igoerek eta administrazioaren salneurriek azken prezioetan izan zuten eraginaren ondorioz. Beraz, kontsumoak ahultasun esanguratsua nozitzen duen arren, prezioen bilakaera orokorra administrazioaren hainbat erabakiek baldintzatu zuten, salneurri horiek goraraziz. Dena dela, erabaki horiek iragankorrak dira eta beraien eragina hamabi hileko igaro ondoren desagertuko da. Halaber, hirugarren hiruhilekoan hauteman zen gehikuntzak moteltzera jo zuen ondorengo hilekoetan. Hain zuzen ere, azaroan urte arteko tasa %2,7ra jaitsi zen, energia ekoizkinak gutxiago garestitu zirelako.

Prezioen gehikuntza horrek Eurogunearekiko inflazio tartearen zeinua aldatu zuen, hileko askoan negatiboa izan ondoren positiboa izatera igaro baitzen. Hain zuzen ere, 2011. urteko maiatzetik inoizko baliorik gorena (%0,6) markatu zuen urrian, baina hamarren bat jaitsi zen gero azaroan, energiaren salneurriak proportzioz gehiago apaldu zirelako EAEn Eurogunean baino.

Los distintos indicadores que analizan la evolución de los precios, a excepción del deflador del PIB, mostraron una tendencia al alza durante el tercer trimestre de 2012, perjudicados por la presión inflacionista del precio del crudo y las subidas de impuestos. Sin embargo, en los meses más recientes, dicha presión se ha ido moderando y la tendencia al alza se ha invertido ligeramente. Por su parte, los costes laborales dieron un nuevo paso en su adaptación a la difícil situación del mercado laboral y mostraron crecimientos negativos, en parte por la reducción de los costes de despido.

El análisis de los precios medidos a través del deflador del PIB confirma una ligera tendencia a la baja de los precios del conjunto de la economía. Así, este se situó en el 0,9%, que se trata del menor valor desde el primer trimestre de 2010. No obstante, el deflador con mayor peso relativo, el del consumo privado, se incrementó respecto al trimestre anterior (2,0% frente al 1,8%), en línea con la evolución mostrada por el IPC, mientras que tanto el deflador del consumo público (0,1%) y el de la formación bruta de capital se redujeron (0,6%).

Por lo que respecta al IPC, tras la moderación del periodo anterior, repuntó notablemente en el tercer trimestre, como consecuencia del impacto de la subida en los precios de la energía, del efecto de las alzas impositivas y de los precios administrados sobre los precios finales. Por tanto, si bien existe una notable debilidad del consumo, la evolución general de los precios estuvo afectada por una serie de decisiones administrativas, que alteraron al alza dichos precios. Con todo, estas decisiones tienen un carácter pasajero, por lo que su efecto desaparecerá al cabo de doce meses. Además, el incremento del tercer trimestre tendió a moderarse en los meses siguientes. Así, en noviembre la tasa interanual bajó al 2,7%, gracias a las menores subidas de los productos energéticos.

Este incremento de precios invirtió el signo del diferencial con respecto a la zona del euro, que pasó a ser positivo tras muchos meses en negativo. Así, en el mes de octubre alcanzó su mayor valor desde mayo de 2011 (0,6%), aunque se redujo una décima en el mes de noviembre, gracias a que los precios de la energía se moderaron en mayor proporción en Euskadi que en la zona del euro.

KPIren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Evolución del IPC



Tasas de variación interanual

Euskadi

Euskadi

Eurogunea

Zona del euro



Iturria: Eurostat eta INE.

Fuente: Eurostat e INE.

Azpiko inflazioak ere zergen igoeraren ondorioak nabaritu zituen, bereziki BEZaren iraileko gehikuntzarenak. Hori dela eta, azaroan %2,1ean kokatu zuen urte arteko aldakuntza tasa, Europako Banku Zentralak prezioen egonkortasunerako ezarri zuen erreferentzia zertxobait gaindituz. Indize orokorraren beste osagai nagusiak, hots, hondar inflazioak, nabarmen apaldu zuen bere hazkunde tasa, energiaren garestitzea gutxitu zelako, baina oraindik urte arteko tasa oso altuak erakusten ditu.

La inflación subyacente también se vio afectada por la subida de impuestos, especialmente por el aumento del IVA del mes de septiembre, por lo que situó su variación interanual de noviembre en el 2,1%, valor ligeramente superior a la referencia de estabilidad del Banco Central Europeo. El otro componente del índice general, la inflación residual, moderó sustancialmente su ritmo de avance, gracias al menor encarecimiento de la energía, a pesar de que todavía registra tasas interanuales muy elevadas.

Kontsumoko prezioen indizearen banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

Desglose del índice de precios al consumo

Tasas de variación interanual y aportaciones

	2010	2011	2012			Ekarpena Aportación	
			II	III	Azaroa Noviembre		
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	1,9	2,5	2,7	2,7	Inflación total (100%)
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,7	1,8	1,2	1,5	2,1	1,7	Inflación subyacente (82,6%)
- Landutako elikagaiak (%13,6)	0,7	3,8	3,1	3,5	3,6	0,5	- Alimentos elaborados (13,6%)
- Industriako ondasunak (%27,7)	-0,2	0,7	-0,1	0,4	0,8	0,2	- Bienes industriales (27,7%)
- Zerbitzuak (%41,3)	1,4	2,0	1,3	1,6	2,4	1,0	- Servicios (41,3%)
Hondarreko inflazioa (%17,4)	6,6	9,5	5,7	7,1	5,8	1,0	Inflación residual (17,4%)
- Landugabeko elikagaiak (%6,9)	0,2	1,5	2,9	2,5	3,9	0,3	- Alimentos no elaborados (6,9%)
- Energia (%10,5)	11,5	15,3	7,5	10,0	7,0	0,7	- Energía (10,5%)

Iturria: INE.

Fuente: INE..

Horiek horrela, KPlaren osagai ez-energetiko guztiek beren prezio igoerak bizkortu zituzten aurreko epealdiaren aldean. Hain zuzen ere eta landutako elikagaiekin hasita, tasa altuetan jarraitu zuten, baina hazkundea galgatzeko lehenak izan ziren, neurri batean tabakoaren garestitzeak urte arteko tasan utzi zuen eragina desagertu zelako. Industria ondasunei dagokienez, oro har inflazioa apaltzen lagundu zuten arren, azken hilekoetan zertxobait igo zuten urte arteko tasa, BEZaren eraginarengatik. Azkenik, zerbitzuen jarduerak oso ezberdinak diren arren, guztiek erakutsi zuten goranzko joera orokor bat prezioen bilakaeran, hauek ere zergen aldaketaren eraginak baldintzatuta.

Indize orokorrean eragin positibo handiena zuten taldeen artean, adierazi behar da edari alkoholodunak eta tabakoa, eta etxebizitzari lotutako zerbitzuak aldakuntza tasa altuetan kokatu zirela berriro, eta bi talde horiei medikuntzarena gehitu zitzaizela, aurreko hiruhilekoetan tasa negatiboak jaso ondoren balio altuak jaso zituelako. Hiru taldeetako lehenak, tabakoaren salneurriaren igoera zuzenduta geratu zen arren, oraindik tasa garrantzitsu bat (%5,6) erakutsi zuen azaroan. Etxebizitza, berriz, hileko horretako talderik inflaziogileena (%6,4) izan zen, argindarrak, gas banaketak eta berogailuetarako gasolioak izan zuten garestitzearen ondorioz. Hala ere, azken produktu hori motelduz joan zen, energiak erakutsi zuen bilakaera positiboaren ondorioz. Azkenik, botiken eta farmazietako beste ekoizkinen salneurriek oso nabarmen bultzatu zuten gora medikuntza taldearen urte arteko aldakuntza tasa azken hilekoetan, %4,0an kokatu arte.

De este modo, todos los componentes no energéticos del IPC aceleraron sus subidas de precios en comparación con el periodo anterior. En concreto y comenzando por los alimentos elaborados, continuaron en tasas elevadas, pero fueron los que antes frenaron su crecimiento, en parte debido a la desaparición del impacto sobre la tasa interanual del encarecimiento del tabaco. Por lo que respecta a los bienes industriales, si bien generalmente contribuyeron a moderar la inflación, en los últimos meses aumentaron ligeramente, por efecto del IVA. Finalmente, a pesar de la heterogeneidad que caracteriza a las actividades de servicios, todos ellos presentaron una tónica general alcista en el comportamiento de sus respectivos precios, motivado por el impacto del cambio impositivo.

Entre los grupos con mayor repercusión positiva en el índice general hay que señalar que continuaron en tasas elevadas las bebidas alcohólicas y tabaco, y los servicios ligados a la vivienda, a los que se unió el grupo de medicina, que registró valores elevados tras presentar tasas negativas en trimestres anteriores. El primero de todos ellos, a pesar de la corrección de la subida de los precios del tabaco, registró todavía valores importantes en el mes de noviembre (5,6%). Por su parte, la vivienda fue el grupo más inflacionista en dicho periodo (6,4%), a raíz de los aumentos que se produjeron en los precios de la electricidad, el gas, la distribución del agua y el gasóleo para calefacción, si bien este último se fue moderando, gracias a la evolución positiva de la energía. Finalmente, los precios de los medicamentos y otros productos farmacéuticos presionaron de forma notable al alza al grupo de medicina este último mes, hasta situar la tasa interanual en el 4,0%.

EAEko kontsumo prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasak

IPC del País Vasco
Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			Azaroa Noviembre	Índice general
			IV	I	II	III			
Indize orokorra	1,7	3,1	2,7	2,0	1,9	2,5	2,7		
Jan. eta alkoholik gabe. edariak	-0,7	2,2	2,4	2,7	2,5	2,5	3,4	Aliment. y bebidas no alcohol.	
Edari alkoholodunak eta tabakoa	10,7	9,8	7,8	1,9	7,3	8,5	5,6	Bebidas alcohólicas y tabaco	
Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,4	-0,1	0,5	0,1	0,5	Vestido y calzado	
Etxebizitza	3,1	7,8	7,0	4,2	5,5	6,6	6,4	Vivienda	
Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,3	0,3	0,4	1,3	2,4	Menaje	
Medikuntza	-0,1	-0,6	-1,6	-2,7	-2,5	-0,7	4,0	Medicina	
Garraioa	6,5	7,7	6,2	5,2	3,6	4,8	2,4	Transporte	
Komunikazioak	-0,7	-0,8	-1,5	-3,5	-3,8	-3,8	-2,8	Comunicaciones	
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,4	0,5	0,3	1,3	1,7	Ocio y cultura	
Irakaskuntza	2,2	1,3	1,3	2,1	2,8	2,9	3,4	Enseñanza	
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	1,2	0,9	1,0	0,9	1,2	Hoteles, cafés y restaurantes	
Besteak	2,1	2,7	2,4	2,1	1,5	2,2	3,9	Otros	

Iturria: INE.

Fuente: INE..

Talde gehienek gorakadak izan zituzten bitartean, komunikazioen taldeak prezioak jaitsi zituen aurreko urteko mailaren aldean. Hain zuzen ere, talde horrek %-2,8an kokatu zuen bere urte arteko tasa azaroan, azken urteetan erakutsi duen salneurriak merkatuzko joerari jarraipena emanez. Telefono zerbitzuetan bizi den prezio gerra dago azken salneurriaren beheranzko bilakaera horren oinarrian.

Frente a las subidas generalizadas de los distintos grupos, tan solo las comunicaciones registraron descensos interanuales en sus precios. Concretamente, este grupo situó su tasa en el -2,8% en noviembre, con lo que da continuidad a la reducción de precios de los últimos años. La guerra de precios registrada en los servicios telefónicos se encuentra detrás de esa evolución a la baja en el precio final.

EAEko industria prezioen indizea

Urte arteko aldakuntza tasak

IPRI del País Vasco

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			Azaroa Noviembre	
			IV	I	II	III			
Indize orokorra	3,3	7,6	6,2	3,2	1,6	1,6	0,8	Índice general	
Kontsumoko ondasunak	0,2	2,4	1,9	0,3	-0,5	-0,5	0,1	Bienes de consumo	
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	0,4	0,3	- Bienes consumo duradero	
- Kontsumo iragankorrak	0,5	3,1	2,3	0,2	-1,0	-0,9	0,0	- Bienes consumo no duradero	
Ekipamendurako ondasunak	0,1	2,1	2,2	1,4	1,2	0,8	0,0	Bienes de equipo	
Bitarteko ondasunak	3,1	6,2	3,2	0,6	-0,6	-0,8	-0,1	Bienes intermedios	
Energia	11,7	21,9	21,7	13,3	8,2	9,7	4,4	Energía	

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

IPRIari dagokionez, azaroan bere hazkunde tasa %0,8ra arte moteldu bazuen ere, dagoeneko 34 hileko kateatu ditu emaitza positibotan. Azken hilekoetako beheranzko fase honetan, zerikusi handia izan zuen energiaren portaerak. Hain zuzen ere, energiaren osagaiak %4,4an kokatu zuen bere urte arteko tasa, petrolioaren fintzea merkatu zelako eta argindarraren ekoizpena, garraioa eta banaketa 2011ko azaroan baino gehiago garestitu zirelako. Ekipamendurako ondasunek ere lagundu zuten industria prezioen hazkundera apaltzen, urte arteko tasa hamarren bat gutxitu zutelako, motorreko ibilgailuen ekoizpenaren prezioek izan zuten jaitsierari esker. Gaintzeko taldeetan gorakadak jaso ziren, guztien artean kontsumoko ondasunen igoera nabarmentzen delarik, hainbat hilekoetan salneurriak gutxitu ondoren, tasa positiboetara itzuli zirelako.

En lo referente al IPRI, aun cuando este moderó su crecimiento hasta el 0,8% en el mes de noviembre, encadena ya 34 meses en registros positivos. En la fase bajista de los últimos meses, tuvo mucho que ver el comportamiento de la energía. En concreto, el componente energético situó su tasa anual en el 4,4%, debido al abaratamiento del refino de petróleo y a que los precios de la producción, transporte y distribución de energía eléctrica aumentaron en menor medida de lo que lo hicieron en noviembre de 2011. Los bienes de equipo también contribuyeron a moderar el crecimiento de los precios industriales, al recortar su tasa anual en una décima, gracias al descenso de los precios de la fabricación de vehículos de motor. En el resto de grupos se produjeron repuntes, destacando entre todos ellos el avance de los bienes de consumo, que regresaron a registros positivos, tras varios meses de reducción de precios.

Lan kostu osoa langile eta hileko bakoitzeko %0,7 jaitsi zen EAEn 2012ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta, nahiz eta jaitsiera hori ez zuen soldaten kostuak eragin, gainontzeko kostuen murrizketak baizik. Soldaten kostuei dagokienez, aurreko hiruhilekoko eta KPI indizearena baino txikiagoa izan zen. Horrek esan nahi du igoera ez zela nahiko izan erosteko ahalmenaren galera saihesteko. Gainontzeko kostuek behera egin zuten iraziteen kalte ordainak gutxitu zirelako, lan erreforma onartu zenetik, nabarmen murriztu baitziren.

El coste laboral total por trabajador y mes fue en Euskadi durante el tercer trimestre de 2012 un 0,7% inferior al del mismo periodo del año anterior, aunque su descenso estuvo motivado no tanto por el coste salarial en sí, sino por la disminución de los otros costes. Por lo que respecta a los costes salariales, su aumento fue menor al del trimestre anterior y al del IPC, lo que certifica que dicha subida fue insuficiente para evitar la pérdida de poder adquisitivo. Los otros costes se redujeron por el descenso de las indemnizaciones por despido, que, tras la aprobación de la reforma laboral, se han reducido sustancialmente.

Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak

Evolución de los costes laborales por trabajador

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	
Kostu guztiak	1,4	0,6	2,5	0,7	2,2	2,2	-0,7	Coste total
- Soldata kostuak	2,0	0,2	0,7	0,9	1,4	2,4	1,3	- Coste salarial
- Bestelako kostuak	-0,4	1,9	8,0	0,2	4,6	1,6	-6,1	- Otros costes
Kostu guztiak industrian	2,3	1,6	2,5	1,7	4,0	-0,2	-0,3	Coste total en la industria
Kostu guztiak eraikuntzan	-0,3	2,3	2,2	1,7	-2,6	-2,9	-3,5	Coste total en la construcción
Kostu guztiak zerbitzuetan	1,4	0,3	3,1	0,6	2,2	3,8	-0,6	Coste total en los servicios

Iturria: INE.

Fuente: INE..

Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, jarduera arlo guztietan lan kostu osoa jaitsi zuten urte arteko tasan. Joera horren erantzule nagusiak, lehenago aipatu denez, lan kontratua amaituta sortzen diren iraziteen kostuak eta kalte ordainak dira. Salbuespena industria da. Halaber, lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuak ere gutxitu ziren, baina azken hauek oraindik aldakuntza tasa positibotik daude.

A diferencia de trimestres anteriores, todos los sectores de actividad presentaron descensos interanuales del coste laboral total, siendo los máximos responsables, como se acaba de comentar, los costes por despidos e indemnizaciones por fin de contrato laboral, salvo en el caso de la industria. Igualmente, se moderaron los costes laborales por hora efectiva, si bien estos aun continúan en valores positivos.

Lan kostuen bilakaera lan ordu bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak

Evolución costes laborales por hora efectiva

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	
Kostu guztiak	0,6	0,7	4,4	1,8	2,9	4,8	0,5	Coste total
- Soldata kostuak	1,2	0,2	2,6	2,0	2,1	5,0	2,5	- Coste salarial
- Bestelako kostuak	-1,1	2,1	9,9	1,2	5,4	4,1	-5,0	- Otros costes
Kostu guztiak industrian	0,3	-0,5	3,8	0,7	4,4	2,3	-3,4	Coste total en la industria
Kostu guztiak eraikuntzan	0,7	1,7	4,3	3,6	-1,5	-1,8	-3,0	Coste total en la construcción
Kostu guztiak zerbitzuetan	0,6	1,2	5,2	2,2	2,6	6,4	2,2	Coste total en los servicios

Iturria: INE.

Fuente: INE..

Azkenik, hitzarmen kolektiboetako datuek baieztatzen dute soldaten igoerak moteltzeko joera bati ekin zaiola EAEko ekonomian. Izan ere, azaroa arte indarrean zeuden hitzarmenetako soldatak %2,5 gehitu ziren, baina urtean zehar sinatu zirenak %1,7 baino ez ziren hazi. Horren ondorioz, soldatapekoek erosteko ahalmena galdu zuten, lan hitzarmena adostuta duten langileen kopurua oraindik oso txikia den arren.

Finalmente, los datos de los convenios colectivos confirman que se ha iniciado un proceso de moderación salarial en la economía vasca. Así, hasta el mes de noviembre, los salarios en vigor aumentaron un 2,5%, mientras que aquellos que se firmaron a lo largo del año tan solo lo hicieron un 1,7%. Con ello, los asalariados perdieron poder adquisitivo, si bien los trabajadores afectados por convenio continúan siendo un número muy reducido.

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak

Urte arteko aldakuntza tasak

Incremento salarial pactado en convenio

Tasas de variación interanual

	2007	2008	2009	2010	2011(*)	
Indarrean dauden hitzarmenak:	5,0	2,7	1,9	3,6	2,5	Convenios en vigor:
Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	1,7	Firmados durante el año
Negoiazio esparruaren arabera:						Por ámbito de negociación:
Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	2,5	Convenios sectoriales
Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,3	Convenios de empresa

(*) 2011ko azaroa arte jasotako lan hitzarmenak.


Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

(*) Convenios registrados hasta el mes de noviembre de 2011.

Fuente: Consejo de Relaciones Laborales.



2.2.6. Arlo publikoa
Sector público



Aurrekontuen egikaritzak, iraila arteko datuekin, neurri batean islatzen ditu defizita gutxitzeko onartu diren aparteko neurriak, hala diru sarreraren ikuspegitik nola gastuen aldetik. Diru sarreretan eragina duten erabakiei dagokienez, zeharkako zergen igoera nabarmendu behar da, BEZ zergaren tipo orokorra eta murriztua igo zirelako, eta baita sozietateen gaineko zergen egin diren aldaketak ere. Gastuen ikuspegitik, nabarmendu behar den erabakia administrazioan lan egiten duten soldatapekoen ordainketa gutxitu izana da. Horiei esker aurrezki publikoak gehikuntza garrantzitsua (%9,0) lortu du.

Gastuen aldetik, doikuntza esanguratsua gertatu zen eta erabilerak nabarmen murriztu ziren gastu arrunteko atal behinenetan, salbuespena finantza gastuak izan zirelarik, zor publikoaren goranzko bilakaeraren ondorioz oso nabarmen igo zirelako. Hala eta guztiz ere, inbertsioek gorakada handia erakutsi zuten, nahiz eta aldakuntza tasa horietan egutegiak eragin garrantzitsua izaten duen.

La ejecución presupuestaria hasta el mes de septiembre refleja parcialmente las medidas de consolidación extraordinaria que se han ido tomando, tanto por el lado de los ingresos como por el lado de los gastos, para reducir las cifras de déficit. En el caso de las decisiones que afectan a los ingresos, hay que destacar el aumento de la imposición indirecta, con subidas del tipo normal y reducido del IVA, y cambios en la tributación del impuesto sobre sociedades, mientras que por lo que respecta a los gastos, lo más reseñable fue la reducción de los salarios públicos. Con ellas se ha conseguido un importante aumento del ahorro público (9,0%).

Por el lado de los gastos, el ajuste fue significativo, con una reducción notable de los empleos en los principales capítulos de los gastos corrientes, salvo en los gastos financieros, que aumentaron significativamente como consecuencia de la evolución de la deuda pública. No obstante, las inversiones mostraron un aumento notable, si bien, el efecto calendario suele tener una gran importancia en estas variaciones.

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen eragiketa
2012ko urtariletik irailera. Mila eurotan

Operaciones presupuestarias Gobierno Vasco
Enero-septiembre 2012. Miles de euros

	2011	2012	Aldak. % % Variac.	
1. SARRERA ARRUNTAK	6.672.156	6.651.012	-0,3	1. INGRESOS CORRIENTES
2. GASTU ARRUNTAK	6.002.917	5.921.373	-1,4	2. GASTOS CORRIENTES
Langileen gastuak	1.383.750	1.354.344	-2,1	Gastos de Personal
Funtzionamenduko gastuak	2.289.383	2.188.103	-4,4	Gastos de Funcionamiento
Finantza gastuak	80.879	118.052	46,0	Gastos Financieros
Transferentzia arruntak	2.248.905	2.260.874	0,5	Transferencias Corrientes
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	669.239	729.639	9,0	3. AHORRO BRUTO (1-2)
4. KAPITALEKO SARRERAK	66.883	107.975	61,4	4. INGRESOS DE CAPITAL
5. KAPITALEKO GASTUAK	408.415	533.553	30,6	5. GASTOS DE CAPITAL
Inbertsio errealak	129.587	215.728	66,5	Inversiones Reales
Kapitaleko transferentziak	278.828	317.825	14,0	Transferencias de Capital
6. FIN. AHALMENA (+) / BEHAR (-) (3+4-5)	327.707	304.061	-7,2	6. CAP (+) / NEC (-) FINANCIERAS (3+4-5)

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila

Fuente: Departamento de Economía y Hacienda.

Aurreko hilekoetan bezala, foru aldundiek zergen bidez bildutako diru sarrerek ekonomiaren ahultasuna islatu zuten 2012ko lehen hamar hilekoen zenbateko pilatuan. Hain zuzen ere, foru aldundiek 8.539 milioi euro bildu zituzten, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta %3,2ko jaitsiera baita eta 282 milioi euro gutxiago diru sarreratan.

Zuzeneko zergak izan ziren berriro bizitasun handiena erakutsi zutenak, eta beraien mota esanguratsuenen artean, PFEZ nabarmendu behar da, gehikuntza txiki bat (%0,6) lortu zuelako diru bilketan. Tasa horretan, eragin positiboa izan zuten atzerapenetatik etorritako sarreraren igoerak eta kontroleko hainbat jarduerak. Halaber, onartu ziren neurri fiskal jakin batzuek ere, hala nola jaiotzearengatik kenketa desagertu izana, lagundu zuten. Aitzitik, langabeziaren gorakadarengatik soldaten ordainketak izan duen narriadurak eragin negatiboa izan zuen zerga horren diru bilketan.

Multzo horretako beste zerga handiak, hots, sozietateen zergak, suspertu gabe jarraitu zuen eta %5,2ko urte arteko jaitsiera jaso zuen, bigarren ordainketa zatikatuaren oinarri zergapegarria zabaltzea ahalbidetu zuten hainbat arau aldaketa onartu ziren arren eta zergaren tipoak igo ziren arren.

Bitartean, zeharkako zergen diru bilketak balio negatibotan jarraitu zuen, BEZaren bilakaerak (%-15,1) biziki kaltetuta. Horiek horrela, eta urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkion enpresen ordainketak kontabilizatuta daudenean, zerga horrek ezin izan zuen diru bilketa hobetu, irailaren 1ean tipoak igotzeko erabakia indarrean sartu zen arren. Beraz, pisu handiagoa izan zuten kontsumo pribatuaren beherakadak eta etxebizitzaren erosketen jaitsierak tipoen igoerak baino.

Azkenik, zerga bereziek ere balio negatiboak aurkeztu zituzten osagai guztietan, salbuespena tabakoaren (%14,1) eta argindarraren (%1,4) gaineko zergak direlarik. Bi kasuetan, gehikuntzaren arrazoia zergaren tipoak eta prezioak igo izana da, kontsumoaren jaitsiera alde handiz konpentsatu zutelako. Beste aldetik, hidrokarburoen gaineko diru bilketan gertatu zen beherakada garrantzitsua izan zen (%-4,4) eta erosketak aurreratu izanak azaldu dezake, neurri batean, bilakaera hori.

Al igual que en meses anteriores, los ingresos fiscales registrados por las diputaciones forales en el acumulado de los diez primeros meses del año 2012 continuaron revelando la debilidad de la economía. Así, las haciendas forales recaudaron un total de 8.539 millones de euros, una cifra que supone un descenso del 3,2% en comparación con el mismo periodo del pasado año y 282 millones de euros menos de ingreso.

Los impuestos directos fueron los que, una vez más, mostraron mayor dinamismo, y entre sus figuras más representativas hay que destacar el leve incremento recaudatorio del IRPF (0,6%). En dicha tasa influyó positivamente el aumento de los ingresos procedentes de aplazamientos y las diversas actuaciones de control, así como determinadas medidas fiscales aprobadas, tales como la supresión de la deducción por nacimiento. Por el contrario, la situación recesiva de la masa salarial, debido al aumento del desempleo, afectó negativamente a la recaudación de este impuesto.

El otro gran impuesto directo, es decir, el impuesto sobre sociedades, continuó sin recuperarse y registró un descenso interanual del 5,2%, a pesar de que se aprobaron algunos cambios normativos que permitieron ampliar la base imponible del segundo pago fraccionado presentado en septiembre, y de que los propios tipos impositivos se incrementaron.

Mientras tanto, la imposición indirecta siguió en valores negativos, notablemente perjudicada por la evolución del IVA (-15,1%). De este modo, este impuesto, en el cual ya están contabilizadas las entregas de las empresas que corresponden al tercer trimestre del año, no consiguió mejorar la recaudación, a pesar de la subida de tipos que entró en vigor el 1 de septiembre. Por lo tanto, pesó más la caída del consumo privado y la menor adquisición de vivienda que dicho aumento de tipos.

Finalmente, los impuestos especiales también presentaron valores negativos en todos sus componentes, salvo en el impuesto que grava el tabaco (14,1%) y en la electricidad (1,4%). En ambos casos dicho aumento vino derivado del incremento de los tipos impositivos y de los precios, que compensaron con creces el retroceso del consumo. Por otra parte, el descenso registrado en la recaudación sobre los hidrocarburos fue importante (-4,4%), que podría verse explicado en alguna medida por el adelantamiento de compras.

Zerga itunduen bilakaera
2012ko urtarrilatik urrira. Mila eurotan

Evolución de los tributos concertados
Enero-octubre 2012. Miles de euros


ZERGA	Diru bilketa Recaudación				TRIBUTOS
	2011	2012	Aurrekon. % % s/Ppto.	12/11 Aldak. % % Var 12/11	
PFEZ	3.183.323	3.203.640	72,0	0,6	IRPF
- Lan eta lanbide jardueraren etek. atxikip.	3.529.152	3.514.779	76,3	-0,4	- Ret. rdtos. trabajo y actividades prof.
- Kapital higagarriaren etekinen atxikipenak	173.026	199.042	95,2	15,0	- Ret. rendimientos capital mobiliario
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	65.279	67.446	75,9	3,3	- Ret. rendimientos capital inmobiliario
- Ondare irabazien atxikipenak	12.739	16.115	118,2	26,5	- Retenciones ganancias patrimoniales
- Prof. eta enpresarien ordaink. zatikatuak	121.620	118.900	74,0	-2,2	- Pagos fraccionad. prof. y empresariales
- Kuota diferentzial garbia	-718.493	-712.642	112,5	0,8	- Cuota diferencial neta
Sozietateen gaineko zerga	1.109.182	1.051.953	92,3	-5,2	Impuesto de Sociedades
- Kapital higagarriaren etekinen atxikipen.	173.026	199.042	95,2	15,0	- Ret. rendimientos capital mobiliario
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipen.	65.279	67.446	75,9	3,3	- Ret. rendimientos capital inmobiliario
- Ondare irabazien atxikipenak	12.739	16.115	118,2	26,5	- Retenciones ganancias patrimoniales
- Kuota diferentzial garbia	858.138	769.350	92,9	-10,3	- Cuota diferencial neta
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	77.875	25.289	32,9	-67,5	Impuesto sobre renta de los no residentes
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	63.342	67.262	82,8	6,2	Impuesto sobre sucesiones y donaciones
Ondarearen gaineko zerga	---	107.847	---	---	Impuesto sobre el patrimonio
Ondarearen gaineko zerga	2.750	---	---	---	Impuestos extinguidos
ZUZENKO ZERGA GUZTIRA	4.436.472	4.455.991	77,5	0,4	TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS
BEZaren bertoko kudeaketa	2.455.079	2.085.085	61,6	-15,1	IVA. Gestión propia
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	80.885	66.561	60,7	-17,7	Impto sobre transmisiones patrimoniales
Egintza juridiko dokumentatuen g/ zerga	48.562	34.399	57,9	-29,2	Impto sobre actos jurídicos documentados
Garraibide jakin batzuen g/ zerga bereziak	20.373	14.994	61,0	-26,4	I. Especial s/ determinados medios transpor.
Fabrik. zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.131.690	1.129.747	77,9	-0,2	I. Especiales fabricación. Gestión propia
Hidrokarburu batzuen txikizkako salm. zerga	36.743	36.515	73,6	-0,6	I. s/ ventas minoristas determ. hidrocarburos
Aseguru sarien gaineko zerga	60.445	56.664	71,1	-6,3	Impuesto sobre primas de seguros
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	3.833.777	3.423.966	66,3	-10,7	TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS
TASAK ETA BESTE SARR. GUZTIRA	84.705	84.220	73,6	-0,6	TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS
BERTON KUDEATUT. ZERGA ITUNDUAK	8.354.955	7.964.177	72,3	-4,7	TOTAL TRIB. CONCERT. GESTIÓN PROPIA
BEZaren doikuntza	546.678	670.749	55,6	22,7	Ajuste IVA
Zerga berezien doikuntza	-80.026	-95.063	85,9	-18,8	Ajuste impuestos especiales
ITUNDUTAKO ZERGA GUZTIRA	8.821.607	8.539.863	70,5	-3,2	TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS

Iturria: Foru Aldundiak.

Fuente: Diputaciones Forales.



2.2.7. Finantza arloa
Sector financiero







Finantza merkatuak, oraindik gorabehera handiak pairatzen dituen arren, hobekuntza garbia ezagutu zuen hirugarren hiruhilabeteko amaieran, batez ere banku zentralak, bai herrialde garatueta bai azaleratzen ari direnetan, aparteko neurriak ezarri zituztelako. Hori horrela izanda, erabaki horiei esker arrisku sariak gutxitu ziren, euroak balioa irabazi zuen eta burtsek gozatzeko joera erakutsi zuten.

El mercado financiero, a pesar de que aún existe una notable volatilidad, experimentó una sensible mejoría a finales del tercer trimestre, debido principalmente a las medidas extraordinarias que tomaron los distintos bancos centrales, tanto en los países desarrollados como en los emergentes. De este modo, gracias a dichas decisiones las primas de riesgo se redujeron, el euro se apreció y las diferentes bolsas mostraron una tendencia al alza.

Bund alemaniarrekiko gainkostua
Ehunekoak

Diferencial con el Bund alemán
Porcentajes



Iturria: Espainiako Bankua.

Fuente: Banco de España.

Aipatu berri denez, Eurogunean kalte handiak eragin zituzten azken finantza desoreken ondoren, Europako Banku Zentralak zailtasunak zituzten herrialdeen zor subiranoa erosiko zuela iragarri zuen. Horretarako, erosketara programa berri bat erabiliko zuen bigarren merkatuan, Salerosketako Moneta Eragiketak (OMT, ingeleseko siglan) izenekoa. Programa horrek aktiboak erosteko aurreko programa ordezkatu du eta beraren helburua moneta politikaren transmisio egokia eta beraren batasuna zaintzea da. Horretaz gain, eta urrian egin zen Europar Kontseiluaren markoan, lehen urratsa eman zen banku batasunerantz, gainbegiratzeko mekanismo bakarra sortuz. EBZk beteko du paper hori.

Como se acaba de señalar, tras los últimos desequilibrios financieros que afectaron al área del euro, el BCE anunció la compra de deuda soberana de los países con dificultades, a través de un nuevo programa de compras en el mercado secundario denominado Operaciones Monetarias de Compraventa (OMT, por sus siglas en inglés). Este programa, que sustituye al anterior de compra de activos, nació con la finalidad de salvaguardar la adecuada transmisión de la política monetaria y su carácter único. Adicionalmente, y en el marco del Consejo Europeo celebrado en el mes de octubre, se dio el primer paso para la unión bancaria, al crear un mecanismo único de supervisión, papel que desempeñará el BCE.

Euroa babesteko behar zen guztia egingo zela iragarri izanak aurreko hilekoetan finantza merkatuetan bizi ziren tentsio gero eta kezkarriagoak zerbait baretzea ahalbidetu zuen eta, horren ondorioz, arrisku sariak gutxitu ziren. Izan ere, zor publikoko bigarren mailako merkatuetan herrialdeen arteko diferentzialen beheranzko joera eragin zuen. Espainiari dagokionez, bonuaren gainkostua gutxituz joan zen eta martxotik inoiz izan duen mailarik apalena lortu zuen. Beste aldetik, kreditu kaudimen handiena duten ekonomien, hots, Alemaniaren eta AEBen, kostuak goranzko mugimenduak ezagutu zituzten, baina beti oso maila apaletan kokatuta.

Ekonomiaren jarduera suspertzeko eta energiaren garestitzeak berriki eragin dituen presio inflaziogileen ondorioz zein ekonomiaren hazkundeaz dauden igurikimenei ondorioz, Europako Banku Zentralak interes tasa ofizialak inoizko mailarik apalenean (%0,75) uztea erabaki zuen. Gainontzeko banku zentral handiek ere moneta politika hedakorak ezarri zituzten. Esate baterako, AEBetan, Fedek %0aren eta %0,25aren artean utzi zuen erreferentziako tasa, 2015eko erdialdea arte luzatzeko asmoarekin. Halaber, aktiboak erosteko beste programa bat iragarri zuen, hipoteka titulizazioetan fokatuta. Erresuma Batuko interes tasek, berriz, %0,5ean jarraitu zuten, 2009ko martxotik indarrean dagoen maila baita. Azkenik, Japoniako Bankuak ere interes tasa ofiziala bere horretan uztea erabaki zuen, %0aren eta %0,1aren artean (2010eko urrian ezarri zuen urkila hori). Halaber, Fedek bezala, bi erakundeek aktiboak erosteko programa zabaldu zuten, ekonomia bultzatzeko neurri gisa.

Beste aldetik, moneta politikaren lasaitzea nagusi izan zen garapen bidean dauden herrialdeetako testuinguru ekonomikoan. Herrialde horietan jardueraren moteltzea espero zena baino biziagoa izan dela kontuan hartuta, pizgarri monetario eta fiskal gehiago beharrezkoak izan ziren. Horretarako, interes tasa ofizialak gutxitu zituzten eta beste neurri administratibo batzuk ere hartu zituzten. Izan ere, hasi dira lehen fruituak ematen eta herrialde horietako banku zentral batzuk interes tasen jaitsierei amaiera ematea pentsatzen ari dira, inflazioaren presioa saihesteko. Adibidez, Brasilen interes tasak %7,25ean utzi ziren, aurreko jaitsieraren ondoren.

Lan merkatuaren ahultasunak eta AEBetako moneta hedapen kuantitatiboaren programa berriak dolarraren balioa truke merkatuetan jaistea eragin zuten. Eurogunean, berriz, europar dirua laguntzeko aipatu diren faktoreek gorantz bultzatu zuten euroaren balioa. Erreserba Federalak iragarri zuen moneta laxotasunaren ondorioz, dolarraren balio galera ez zen euroaren aldean bakarrik gauzatu eta beste diru batzuen aldean ere gertatu zen. Salbuespena Japoniako yena izan zen, balioa galduz joan baitzen 2011ko udatik inoiz izan duen baliorik txikienean kokatu arte.

El anuncio de que se haría todo lo necesario para proteger el euro hizo posible que se redujeran las crecientes tensiones registradas por los mercados financieros en los meses precedentes, con lo que efectivamente las primas de riesgo se redujeron. Así, en los mercados secundarios de deuda pública provocó una tendencia a la baja de los diferenciales de los distintos países. En el caso de España, el diferencial del bono se fue moderando hasta alcanzar el nivel más bajo desde el mes de marzo. Por su parte, los costes de las economías con mayor solvencia crediticia, es decir, Alemania y Estados Unidos, experimentaron ciertos movimientos al alza, aunque siempre dentro de unos niveles excepcionalmente bajos.

Con el objetivo de impulsar la actividad económica y debido a las recientes presiones inflacionistas derivadas del encarecimiento de la energía y las expectativas sobre el crecimiento económico, el BCE acordó mantener los tipos oficiales en el nivel mínimo histórico del 0,75%. También el resto de grandes bancos centrales optó por políticas monetarias expansivas. Así, en Estados Unidos, la Fed mantuvo el tipo objetivo en el rango del 0% y el 0,25%, con el propósito de prolongarlo hasta mediados de 2015, y anunció un nuevo programa de compra de activos, centrado en titulizaciones hipotecarias. Por su parte, los tipos de interés en Reino Unido permanecieron en el 0,5%, un nivel que está vigente desde marzo de 2009. Finalmente, el Banco de Japón también optó por prolongar su tipo de interés oficial entre el 0% y el 0,1% (rango establecido en octubre de 2010). Además, al igual que la Fed, ambas entidades ampliaron su programa de compra de activos, como medida de impulso a la economía.


Por su parte, el relajamiento de la política monetaria también dominó el contexto económico de los países emergentes. Dado que en estos países la ralentización de la actividad está siendo mayor que la esperada, fueron necesarios estímulos monetarios y fiscales adicionales, apoyándose para ello en recortes de los tipos de interés oficiales y en el uso de medidas administrativas. De hecho, los primeros resultados comienzan a vislumbrarse, con lo que algunos bancos centrales de dichos países se fueron planteando el fin de ciclo de las bajadas de tipos, para evitar presiones inflacionistas. Así, en el caso de Brasil se mantuvieron los tipos en el 7,25%, tras el descenso anterior.

La debilidad del mercado laboral y el nuevo programa de expansión monetaria cuantitativa de Estados Unidos contribuyeron a que se depreciara el dólar en los mercados de cambio, mientras que en el área del euro los citados factores de afianzamiento de la divisa europea impulsaron al alza el euro. Esta laxitud monetaria anunciada por la Reserva Federal provocó que la depreciación del dólar no se produjera solo frente al euro, sino también con otras monedas, salvo con el yen japonés, que se fue depreciando hasta situarse en su valor mínimo desde el verano de 2011.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
 Moneta unitateak euro bakoitzeko


Tipos de cambio oficiales del euro del BCE
 Unidades monetarias por euro

Dolarra




Dólar

Libera esterlina




Libra esterlina

Suitzako frankoa



Franco suizo

Yena



Yen

Iturria: Espainiako Bankua .

Fuente: Banco de España.

Gainontzeko merkatuetan bezala, errenta aldakorraren bilakaera ere moneta aldaketa guztien isla izan zen. Hain zuzen ere, moneta baldintzak lasaitu izanak, inbertitzaileek arrisku gehiago hartzeko erakutsi duten nahiak, garapen bidean dauden herrialdeek bizi duten egonkortasunak eta Eurogunean banku batasunaz onartutako lehen akordioek abuztuko erdialdean burtsek lortu zituzten igoerei jarraipena ematea ahalbidetu zuten. Hala eta guztiz ere, oraindik ez zen sendotasunik hauteman erosketen igoeran. Are gutxiago IBEX35eko kasuan, gorakada bizia lortu bazuen ere oraindik galerak pilatzen segitu zuelako.

Finantza arloko egonkortasun handiagoa banku arteko merkatuan ere hauteman zen. Beraietan, gordailuen interes tasek beheranzko joera markatua erakutsi zuten azken hilekoetan, inoizko mailarik txikienetan kokatu arte.

Al igual que en el resto de mercados, la evolución de la renta variable también fue reflejo de los distintos cambios monetarios. Así, el relajamiento de las condiciones monetarias y la menor aversión al riesgo mostrada por los inversores, unido a la estabilización de los países emergentes y los primeros acuerdos de la zona del euro en relación con la unión bancaria, hicieron posible que las bolsas continuaran con las subidas iniciadas a mediados del mes de agosto. No obstante, no se produjo aún un aumento sólido de las compras, y más en el caso del IBEX35, que, a pesar de haber experimentado un fuerte ascenso, todavía siguió acumulando pérdidas.

La mayor estabilidad financiera también se manifestó en el mercado interbancario, donde los tipos de interés de los depósitos mantuvieron una marcada trayectoria descendente en los últimos meses, hasta situarse en mínimos históricos.

Interes tasen bilakaera

%

Evolución de los tipos de interés


%

Hiru hilabeterako euriborra

Euribor a 3 meses

Urte baterako euriborra

Euribor a 1 año



Iturria: Espainiako Bankua.

Fuente: Banco de España.

Arlo pribatuari emandako kredituak beheranzko joera erakusten jarraitu zuen, urte arteko tasa %-5,4an kokatuta, azken hiruhilekoetako balioaren oso azpitik baitago. Ekoizpen jarduerak finantzatzera bideratutako maileguek beste beherakada bat (%-14,7) jaso zuten, familiei emandako maileguena (%-1,1) baino handiagoa. Horrek baieztatzen du sektore pribatuaren zorrak gutxitzeko prozesuak aurrera egin zuela. Izan ere, lehen finantzazio motari dagokionez, jaitsieraren arrazoiak ekonomia jarduera orokorraz eta sektore edo sozietate jakin batzuek dauden igurikimenean gertatu den narriadura eta funtsen eskaintzak onartzeko irizpideak gogortu izana dira.

Familiei emandako finantzazioak, berriz, murrizten jarraitu zuen hirugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, helburuaren araberako sailkapenean, beherakada biziagoa izan zen kontsumo ondasunak erostera bideratutako maileguetan (%-12,3), bizitegia erostera zuzendutako maileguekin alderatuta (%-0,4). Azken honek, salneurriak jaitsi ziren arren, ezin izan zuen suspertu.

El crédito al sector privado siguió mostrando una tendencia descendente, con una variación interanual del -5,4%, un valor muy inferior al de los últimos trimestres. Los préstamos destinados a financiar actividades productivas registraron de nuevo una contracción (-14,7%) mayor que la de los préstamos a hogares (-1,1%). Todo ello confirma que el proceso de despalancamiento del sector privado continuó su curso. Así, en lo que respecta al primer tipo de financiación, su contracción estuvo motivada tanto por el deterioro registrado en las expectativas sobre la actividad económica general y de sectores o sociedades concretas, como por el endurecimiento de los criterios de aprobación de oferta de fondos.

Por su parte, la financiación concedida a los hogares continuó reduciéndose en el tercer trimestre. En concreto, y según el desglose por finalidad, la caída fue más acusada en los préstamos destinados a la adquisición de bienes de consumo (-12,3%), en comparación con los que se destinaron a la adquisición de vivienda (-0,4%). Esta última, a pesar de sus menores precios, no consiguió recuperarse.

EAEko kreditu pribatuen sailkapena
eskatutako xedearen arabera
Urte arteko aldakuntza tasak

Clasificación de los créditos privados en Euskadi
por finalidad
Tasas de variación interanual

	2011	2012				Mila € 2012-III Miles de € III 2012	Guztiarekiko ehunekoa Porcentaje s/total	Finalidad:
		IV	I	II	III			
Xedeak:								Finalidad:
Ekoizpen jarduera finantzatzea	-2,4	-3,7	-6,9	-8,9	-14,7	15.504.181	26,7	Financiar act. productivas
- Eraikuntza	-7,6	-5,4	-13,2	-10,9	-16,3	2.732.475	4,7	- Construcción
- Higiezin jarduerak	-5,2	-2,3	-10,8	-8,4	-20,4	5.618.455	9,7	- Act. inmobiliarias
- Bestelakoak	2,9	-4,2	-0,4	-8,5	-8,8	7.153.251	12,3	- Otros
Familien gastua finantzatzea	0,9	0,3	-0,2	-0,3	-1,1	42.209.499	72,6	Financiar gasto hogares
- Etxebizitza erostea	1,5	1,1	0,5	0,4	-0,4	37.815.502	65,0	- Adq. vivienda propia
- Kontsumo iraunk.ond. erostea	-15,1	-6,8	-13,6	-12,4	-12,3	723.537	1,2	- Adq. bien. consumo duradero
-Familien beste gastuak	-1,4	-5,6	-4,0	-4,2	-5,7	3.670.460	6,3	- Otros gastos de los hogares
Bestelakoak	-58,2	-63,2	-26,5	3,8	-27,1	437.524	0,8	Otras
GUZTIRA	-1,4	-2,3	-2,5	-2,8	-5,4	58.151.204	100,0	TOTAL

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EAEko banku, kutxa eta kooperatiben datuetan oinarrituta

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos de los bancos, y cooperativas vascas.

Azkenik, gordailu pribatuak EAEn, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean hobetu ziren arren, berriro gutxitu ziren (%-6,9). Jaitsierak aktibo guztiei eragin zien, salbuespena aurrezki gordailuak direlarik, balio positiboak berreskuratu zituztelako. Horiek horrela, EAEko biztanleriak likideziaren aldeko hautua leundu duela hautematen da, bigarren hiruhilekoa baita ageriko gordailuak murriztu direla (%-7,6), aurreko epealdietan gehikuntzak lortzen zituen aktibo bakarra zirenean.

Finalmente, los depósitos privados en Euskadi, si bien mejoraron respecto al segundo trimestre del año, volvieron a reducirse (-6,9%). El descenso afectó a todos los activos, salvo a los depósitos de ahorro, que recuperaron los valores positivos. De este modo, se aprecia una pérdida de preferencia de la población vasca por la liquidez, ya que es el segundo trimestre consecutivo en el que cayeron los depósitos a la vista (-7,6%), cuando en periodos anteriores era el único activo que presentaba incrementos.

EAEko gordailu pribatuen sailkapena
Urte arteko aldakuntza tasak

Clasificación de los depósitos privados en Euskadi
Tasas de variación interanual


	2011	2012				Mila € 2012-III Miles de € III 2012	Guztiarekiko Ehunekoa Porcentaje s/total	
		III	I	II	III			
Kreditu kooperatibak	0,8	0,8	-0,1	-2,1	-3,1	12.453.140	18,3	Cooperativas de crédito
Banku eta kutxak	-2,8	-2,8	-7,9	-9,0	-7,7	55.620.836	81,7	Bancos y cajas
Ageriko gordailuak	16,9	16,9	6,1	-8,2	-7,6	12.776.801	18,8	A la vista
Aurrezki gordailuak	-15,2	-15,2	-19,5	-0,7	1,1	12.299.487	18,1	De ahorro
Eperako gordailuak	-4,5	-4,5	-7,9	-12,4	-10,9	30.544.548	44,9	A plazo
GUZTIRA	-2,2	-2,2	-6,6	-7,8	-6,9	68.073.976	100,0	TOTAL

Iturria: Espainiako Bankua.

Fuente: Banco de España.



2.2.8. Kreditu Sistema
Sistema Crediticio



Atal honetan EAEko kreditu-sistemaren zenbaki nagusiak laburki aurkeztuko dira. Izendapen horren barruan, Eusko Jaurlaritzaren eskuduntzen eremuan sartzen diren erakundeak kokatzen dira, hots, aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak. Halaber, esparru horretan elkarren bermerako sozietateen eta krediturako finantza-erakundeen argibideak ere sartu dira (hain zuzen ere, helbide soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izanik eta jarduerak gure lurraldean gauzatu EAEko enpresen finantziario ahalbidetzen duten erakundeen argibideak sartu dira). Erakunde horiek guztiek beren gizarte-helburua garatzeko orduan EAEko Administrazio Orokorren laguntza ekonomiko eta finantzario garrantzitsua izan ohi dute.

2012ko urtarrilaren 1ean, Kutxabanke bere jardura hasi zuen, EAEko hiru kutxek —BBK-k, Kutxak eta Vitalek— bat egiteko prozesua gauzatu ondoren. Aipatutako hiru horiek Kutxabankera aldatu zuten haien finantza-negozioa eta hirurak dira banketxe berriaren akziodun bakarrak. Halaber, EAEko finantza-erakundeek hasi duten integrazio-esparruan, bat egiteko prozesu bati ekin zioten 2012an Caja Laboral Popular-Lankide Aurrezki Kutxak eta Ipar Kutxa Ruralek. Prozesu hori 2012ko azaroaren 1ean bukatu zen, bi erakundeen aktiboak, pasiboak eta ondare garbi guztia biltzen dituen kreditu-kooperatiba berri baten sorrerarekin.

